



Hamarkada biko zeharkaldia ospatzen

KOMUNITATEEN

ADMINISTRAZIOA

Tel: 943 70 25 40



KOMUNITATEAK

- Auzo-komunitateen administrazioa
- Etxebizitzak, garajeak, industriak...
- Jaurlaritzaren dirulaguntzen tramitazioa

AHOLKULARITZA

- Fiskala
- Kontabilitateak
- Laborala
- Aseguruak

EIBAR



Residencial
Hiri Erdi
Bizigunea

Eibarko inguru onenean bizi nahi duzu?

Gela bateko apartamentuak 180.000 €-tik

Gela biko etxebizitzak 260.000 €-tik

Ordainketarako erosotasuna eta zure
etxebizitza saltzeko konponbidearekin

INFORMAZIOA
ETA SALMENTA

Egogain kalea
(Autobus geltokiaren
ondoan)

943 20 21 99


LANDU
Promociones



Euskara Elkarteak

ARGITARRATZAILEA:

...eta kitto! Euskara Elkarteak

HELBIDEA:

Urkizu, 11 - solairuartera
20600 Eibar

TELEFONOAK:

943 20 67 76 / 943 20 09 18

FAXA:

943 20 28 72

Astekariaren E-MAILak:

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitateak@etakitto.com

Elkartearen E-MAILak:

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Itziar Albizu

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

Ekhi Belar

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:

Koldo Mitxelena

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Jose Luis Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:

Leire Iturbe, Silbia Hernandez
eta Ekhi Belar.

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia

Maidier Aranberri

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnoa: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA:

Andoni Zendoia

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ihintza Fernandez

TIRADA:

7.950 ale

INPRIMATEGIA:

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A:

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA:

SS/430/92

ISSN:

1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Sail honen helburua ez da euskera irakastea, ezta hiztegi bat egitea ere. Gure gurasoek eta haien gurasoek erabiltzen zuten euskera gogora ekartzea eta berreskuratzea da asmoa. Gaur egunean euskerak esparru guztiak hartu ditu eta gaur egun baino euskaldun gehiago ez da inoiz egon; baina, hala ere, oraindik euskera ez da erabateko komunikazio-tresna: hainbat gauza esatea kostatu egiten zaigu, ez dugu gaztearen bezalako erraztasunik eta trebetasunik. Sail honetan euskeraren alde adierazkorra landu nahi dugu, euskerak berez daukan gaitza eta berakatzatza berreskuratu. Horretarako aurreko belaunaldietara jo dugu, gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera jatorraren berri jasotzeko.

EDUR-HAIXE.- Elurra dakarren haizea, oso hotza, ez oso umela hotza. Elurra egin aurretik igartzen da. "Edur-haixia gogor dabil eta laster dogu dana zurittuta".

EDUR-LAPATX.- Elur geruza fina. "Edur-lapatxa eguan bidian eta, kotxia albora juan!".

EDUR-PIKOR.- Elurra garau txikitan jausten denean. Malutak izan beharrean, txingorraren antzeko elurra, gogorra, txikia eta lehorra. "Edur-pikorragaz ekin detsa eta edur malutiakin amaittu dau".

IRAKURLEA PROTAGONISTA eskutitzak

AHT-REN PROIEKTUA DIRUZ EZ LAGUNTZEKO KANPAINA

Jakingo duzuezen pasa den urrian AHTaren proiektua diruz ez laguntzeko EuskoTren eta Renfe enpesei ez ordaintzeko kontzientzi eragozpen kanpaina bat jarri zen abian. Helburua AHTaren proiektua diruz ez laguntzeaz gain, aipaturiko 2 enpresa hauen kolaborazioa salatzea da.

EuskoTren-ek AHTaren enpresa operadorea izan nahi du. Era berean ETS (Euskal Trenbide Sarea), EuskoTrenen azpiegituren arduraduna, Euskal Y-aren Gipuzkoako zatia eraikitzen ari da. Eusko Jaurlaritzak EuskoTren erabiltzen du AHTaren proiektuan xahutzen ari den dirutza ezkutatzeko. Aurrekontua nahastu eta trenean 161.860 miloi eurotako inbertsioa egingo duela sinistarazi nahi digu, baina horietako 25.000 AHTarentzat dira. Diru desbideraketa honen adibide garbitzat jo dezakegu orain dela gutxi EuskoTrenek AHTaren alde egindako publizitate kanpaina.

Renferi dagokionez esan behar da AHTaren operadore nagusia dugula eta AVEan iada milaka miloi eu-

ro gastatzen dituela. Honetaz gain ADIF, Renfeko azpiegiturretaz arduratzen den enpresa, Euskal Y-a eraikitzen ari da.

Beraz bi enpresa hauek diruz ez laguntzeko arrazoiak ugariak dira. Gero eta jende gehiago ari da batzen kanpaina hortara, eta gero eta gehiago izan gaitezke. Egin behar den gauza bakarra tren erabiltzean bidai txartela erosi ordez kontzientzia eragozpen adierazpena bete eta hori erabiltzea da. Dena dela, eta kanpaina ahalik eta jende gehienari zabaldu nahian, bihar zapatua, apirilak 19an, ez ordainketa kolektiboak egingo dira Euskal Herriko hainbat lekutan. Inguru honetan Durango eta Debatik abiatuko gara eta Eibarko tren geltokian jeitsiko gara denok batera, 20.10ak aldera.

Gutun honen bidez ez ordainketa kolektibo hauek parte hartzeko deia luzatu nahi dizuegu, eta kanpainen parte hartzera gonbidatu. Besterik gabe, trenean ikusiko dugu elkar.

Abiadura Handiko Trenaren aurkako plataforma

LIBURUTEGIXAREN INAUGURAZIUNA

Martitzenian, hillaren 15ian, inaugurau zan birmoldatutako Udal Liburutegixa, eta ekitaldixetariko bat olerki irakurketia izan zan. Arras ekitaldi polita eta txalogarria, egitan!!, eta "...eta kitto" astekariko orrietatik zorioondo gura detsat "Antzerki Maitaleak" tal-

deko kidieri eta baita Kulturako zinegotzixa dan Marjose Telleria andereari.

Jarraitu kulturaren sustapenian, arren, jendiaren erantzuna ez bada be zeuek espero zenuena!!

J. Iñaki Martarena


asteko esaldiak HEMEROTEKA

"Bizitza luzea lortzen ari gara; bestalde, biologo ezagunek diote hilezkorrak izango ginatekeela gure genetika menperatzea lortuko bagenu eta zelulen zatiketen muga hautsi. Senecarekin bat nator: bizitza luzea baino, ona da behar duguna. Soziopolitikoki, gainera, sekulako nahastea izango litzateke zaharen gizartea"

(Javier Sádaba, filosofoa)

"Euskal kultura transmisio hitza lehen mailan dago aspaldian, eta ez dakit zergatik dagoen kezka hori. Hiztegietan halako atal berezi bat eman beharko liokete. Uste dut gure jarduna berez horixe dela: aritu eta kantatu. Hori da gure transmisioa. Gero, teorizatu behar dela horretaz... beti gaude aztertzen zer egoeratan gauden"


(Ruper Ordorika, kantaria)



EIBARKO UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA (HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria



Eibar inde-Center (II)

Hire Eibar! Nun dakak eta nora daroiak! Aprobau dala Plan Jenerala. Topa dagigun eta pakian bizi gaitxezen betiko! Ala, Jeneral baten Plana? Kontrako batallioan bila nabil aspaldixan! Polbora bustitxa edo armagiñok!? Hau da hau, eta gu daneri jaten emoten, zuri eta baltz. Ze libre eta ze diferente ikusten dogun Coliseo aurrekaldia eh? Jo! Eta derrepente danon begixetara bistaratu dan Casco-ko edifizio edarra? Ba, maguak letxe, ointxe ikusten dozuen moduan... artxiola-martxiola-usaiñtxarradario-la! ointxe ezkutau dala! Asta-putz jigantia lehen Plazian lekuan! Maguen balixorik haundixena muturren aurrian eitxen dotsuezela eitxeuok ezta? Terribliak dira batzuok! Eta ointxe arte lau neurtzen zitxuan etxiak, aurreko berbok bota eta,... bost edo sei! Baña, gure Inde-Center hori... herrixana zana (ayuntamentuana barik), konturatu garan orduko, hatzapar pribuetatik txintxilixka. Hel-duta edo, emonda edo, erregalauta, zer dakitx ba nik! Jakiñ gitxi, zoritxarrez, baña opinixua hamengotxia. Datorren eguaztenian alegaziñuak eitxeko epia amaitxuko da, eta gero ya -Arrateko Ama bihar askotxokin dabil eta- Errebal-Center kartela pinttatzen hasiko dira (pintxau ez badabe daoneko...) Gráziak Txantxa-zelaixan behintzat lorak jartzeko lekua geratu zan ezta? Ay ama! Hoixe, lorak, eta txakurrak pasian, eze, hankabikuok ranpan gora eta ranpan behera ibiltzera kondenau gintxuen. Baña, hau hurrengo baterako.

Josu Garate
(ARKITEKTUA)

Gaur hasita eta sanjuanak arte egin ahal izango da errenta aitorpena

Zerga ekitaldiko kanpainari gaur emango dio hasiera Gipuzkoako Foru Aldundiak; horrela, errenta aitorpena aurkezteko epea gaur hasi eta ekainaren 25ean amaituko da. Bestalde, auto-likidazio proposamenak onartzeko epea astelehenean zabaldu zen eta maiatzaren 9ra arte luzatuko da; eta errenta mekanizaturako hitzordua atzotik ekainaren 15era arte eskatu ahal izango da. Aurtengo errenta kanpainari begira, guztira 374.000 errenta aitorpen inguru egingo direla uste du Diputazioak. Kopuru horretatik, 283.000 aitorpenetan zergadunei dirua itzuli beharko diela aurreikusten da, 322.566 milioi euro itzuliz. Gainontzeko 91.500 aitorpenetan herritarrek izango dira Diputazioari dirua eman beharko diotenak.

Aurtengo kanpainaren berrikuntzen artean honakoak daude: kenkari altuagoak dituzte ezin-duak edo adineko pertsonak bere kargura dituztenek; alokairuan dagoenari lehendik zuen kenkaria gordeko bazaio ere, alokatu duenak ez du inongo kenkarik izango; auto-likidazioan dokumentazio gutxiago aurkeztu beharko da; eta, azkenik, partikularrek aitorpena internetez aurkez-



tu dezakete geroago frogagiriak bulegoetara eraman gabe.

Gipuzkoako Diputazioak hiru arreta zerbitzu eskaintzen ditu kontsultak egiteko. Telefonoz egin nahi duenak, 902 100 040 zenbakira deitu beharko du astelehenean barixakura (08.00-15.00). Telefono hori erabili daiteke autolikidazio proposamena onartzeko edo mekanizaturako hitzordua eskatzeko. Tramiteak Internetez egiteko, www.gipuzkoa.net/ogasuna webgunera sartu beharra dago. Hirugarren arreta zerbitzu bat ere badago: aurrez aurrekoa. Debabarrena-koek Arragueta kalean dute zerga-bulegoa.



LEIRE ITURBE

II. Errepublikaren urteurrena

Asteburuan pilatu zituzten II. Errepublikaren 77. urteurrena gogoratzeko ekitaldiak. Zapatuan Ahaztuak 1936-1977 elkartekoek gogoratu zuten aldarrikapenaren urteurrena eta domekan, berriz, Ezker Batua taldearen txanda izan zen. 1931ko apirilaren 14an II. Errepublikaren bandera igotzen lehenak izan ziren eibartarrak, eta urtero hori gogoratu ohi da hainbat ekitaldirekin. Eguenean bertan txapligoak botatzen dituzte sozialistek.



...eta kitto! hobetzeko inkesta

Aurreko astean aldizkariarekin batera inkesta banatu genizuen, egindako galderei zuek erantzundakoekin astekaria hobetzeko puntuak jaso eta gero aztertzeko asmoarekin. Hemendik egun batzutura telefono bitartez egingo den galdegia osatzera dator idatzizko

inkesta hau. Apirilaren 25era arte jasoko ditugu idatzizko zuek proposamenak, horretarako bereziki banatu zen orrian (tolostu eta pegatuta, edozein buzoitan sartuta doan bidali daiteke). Internet bidez ere erantzun daiteke, www.etakitto.com helbidera sartuta eta, norbaitek erantzuteko interesa

izanez gero eta inkesta beharko balu, gure bulegotik pasa daiteke inkesta jasotzera (Urki-zu, 11 solairuartera). Honez gero erantzun duzuen guztiei eskerrik asko zuen laguntzaren-gatik. Erantzun ez duzuenak animatu nahi zaituztegu, denen ekarpenak astekaria hobetzeko lagungarri izango baitira.

autuan

HIRIGINTZA IDAZKARIRAKO LAN ESKAITZA

Eibarko Udalak Hirigintzako idazkari lanpostua betetzeko, mugikortasun-prozedura bidezko oposizio-lehiaketa deitu du. Baldintzak honakoak dira: Eibar-ko Udalean administrari mailako funtzionarioa izatea, gutxienez urte biko antzintasunarekin eta 2. mailako Lanbide Heziketako ikasketak eta 3. hizkuntza-eskakizuna izatea. Eskaerak apirilaren 20ra arte (domekara arte) Pegoran aurkeztu daitezke. Informazio gehiagorako www.eibar.net helbidera jo daiteke.

AHTREN EKITALDIA

Abiadura Handiko Trenaren proiektua diruz ez la-

guntzeko, AHTren kontrako plataformak Eusko Tren eta Renfe enpresei ez ordaintzeko kontzientzia eragozpen kanpaina abiatu zuen urrian. Kanpaina horren barruan, bihar hainbat tokitan ez ordainketa kolektiboak egiteko deia egin dute. Eibarren tren geltokian batuko dira, 20.10ak aldera.

360 EURO TERRAZA IPINTZEKO

Herriko tabernariak bataz beste 360 euro ordaintzen dute, taberna kanpoan mahaiak eta aukiak ipintzeko. Tabernariak baimena eskatu behar izaten dute terraza ipini ahal izateko eta gutxi gorabehera 25 tabernarik aurkezten dizkiote eskaerak Udalari.



Manifa
nazionalik ez

Errebali alegazioak aurkeztuko dizkio Aralarrek

Aralar taldeak alegazioak aurkeztuko dizkio Udalak eta Errebal Boulevard enpresak sinatutako hitzarmenari, eguazten arratsaldean herritar ugari erakarri zuen batzar irekian azaldu zuenari jarraituta. Apirilaren 23an, eguaztenean amaituko da Errebaleko merkatu berriari alegazioak egiteko epea, hitzarmen urbanistikoari dagokionez.

Aralarren alegazioen zutabe nagusia espazio publikoak osatzen du: aurreikusitakoa baino espazio publiko gehiago eskatzen du Aralarrek eta kritika nagusia derrigorrezko lur-lagapenaren %10a ez erabiltzearen inguruan egin du. Mari Asun Gartzia taldeko ordezkariaren berbetan, "espazio publiko gisa izendatutako 400 metro karraturen erabilera ezak bultzatu gaitu alegazioa



SILBIA HERNANDEZ

aurkeztera". Alegazioan jasotakoaren arabera, "hitzarmenak ez dauka oinarri juridikorik, derrigorrez doan egin beharreko lur-lagapenaren aprobeitxamenduaren %10 hori partzela-eraikigarri bilakatu ordez, 465.923 eurotan monetarizatu dute-eta". Horrez gain, lur azpian garajeak eraikitzeko lurraren titularitate pribatua Errebal Boulevardek beretzat hartu izanaren inguruko beste alegazio bat sartuko dute.

Alegazioen aldeko sinadurak batzeko asmoa du Aralarrek, gaur 19.00etatik 20.30etara eta bihar, zapatua, 11.00etatik 13.00etara Arrate Kultur Elkartean. Alegazioak Udalean aurkeztuko dituzte eta, han onartzen ez badizkiete, gaia Arartekoaren aurrera eramateko prest daude.



SILBIA HERNANDEZ

Asteburu betea Zubi Gain tabernan

Taberna zabaldu zutela 3 urte betetzen direla ospatzeko, Zubi Gain tabernakoek ekitaldiz betetako asteburu prestatu dute. Gaur arratsaldean, 19.30etatik 21.00etara, tabernara doazen guztientzat piskolabisa egongo da eta



22.30etatik aurrera, berriz, Heineken jai hasiko da. Besteak beste Heineken egiten den fabrikara joateko 12 bidaia eta 5 litroko 10 kupel zozketatuko dituzte. Eta, gauerdian, Marsel Magoaren saioa hasiko da. Zapatuan, eguerdiko txikiteoa trikitilariak girotuko dute eta arratsaldean, berriz, 19.30etatik 21.00etara piskolabisa emango dute. Gauean, 23.30etan jai hasiko da hainbat operari eta sarirekin eta, ondoren, gauerditik aurrera karaoke jaiaren txanda izango da. Irabazleentzat sariak egongo dira: lagun birendako afaria Chalcha jate-txean lehenengoarentzat, X-Box kontsola bigarrenarentzat eta Zubi Gain tabernan lagun birendako afaria hirugarrenarentzat. Amaieran sorpresa egongo da. Eta, ospakizunekin amaitzeko, domeka eguerdian trikitilariak girotuko dute taberna.

Finantza krisia, batetik, eta ekonomiaren atzeraldia, bestetik. Eta horrekin batera, petrolioaren eta lehengaien garestitzea. Labur esanda, prezioen kontrolik bako igoera, eta familien zorpetzea. Ekonomia gaixo ei dago, eta etxegintza sektorean igarri ei da bereziki makalaldi hori.

Azken urteotan hain emaitza onak lortu dituen sektorea estu dabil aspaldian, eta horren erakusle dira Espainiako Estatistika Institutuak emandako datuak. Haren arabera, urtebetean %26 inguru jaitsi da etxebizitzaren salerosketa Hego Euskal Herrian. Urte askoan ekonomiaren oinarria izan den sektorea amildegiaren ertza ikusten hasia dela esan eta esan ari dira adituak.

Ez dakit horrenbesterako izango den, baina badago zerbait, saltzeko dauden etxebizitzetako iragarki asko kolorea galtzen ere hasi dira-eta. Garai ona ei da etxe bila hasteko. Nazioarteko Diru Funtsak ohartarazi du etxebizitzaren prezioak %20 inguru daudela puztuta, eta burbuila hori noiz lehertuko zain gaude, Jaione gure kontu-kudeatzailearengana joan eta bankuarekin bizitza osorako ezkontzeko, betirako zorpetzeko. Etxebizitza izateko eskubi-dea zozketatzen den garaian, zorpetu ahal izatea bera ere ametsa bihurtu baita askorentzat. Are gehiago orain, babes ofizialeko etxebizitzak %8 inguru garestituko direla iragarri dutenean, eta finantza krisiaren ondorioz, bankuek lehen baino traba gehiago jartzen dituztenean mailegua eskatzeko. Eta oraindik ez da manifestazio nazional bat egin, Andoni. Ez, neuk ere ezin dut sinetsi.

Ainara Argotia
(KAZETARIA)

1998-IV-17
230. ZKIA.



-EUKI-
HERRIKO TALDEAREN BEGIZKORTZEAREN BARRIKO LASTERKETAK, UNIBERTSITATEA



Rugbiko nesken taldia osatu zan oin dala hamar urte.



Apirillaren 5ian ipiñi zetsen On Pedro Zelaiaren izena Amañako plazari.

- Oin dala hamar urte, gure herrisam 10.000 etxebizitzara inguru bezagaram be, beste 1.300 bat lagun etxebizitzaren bila zabillem. Onduko metro karratueren prezisa 180.000 pezetakua ram, jitiñi garabekera.
- Herriko kaimbat taldeak bultratuta, Pedro Zelaiaren amezar plana jartzeko ideia sartu ram. Udalak amartuta, Amañako elizaren pariam dogan plazari bere izena eman jakam, bera hil eta lau urtera.
- Egozbarra udal batzondiak hiru liburukaleratzeko asmoa adierazi zebam. Eibarko kantuari buruzkoa ram bat, 650. urteurrenaren hitzaldixema bigarrema eta Gregorio Santa Kruzaren biografarema ram oskema.
- Onduko Eibar-Euki taldiak hurrengo dambardindirako masken taldia osatram kasi ram. Best urte lehenago sartutako masken taldia ordurako desosertuta zebam eta herriko batzuk Eibarriko taldiam jokatram zebam.

Goitibehera lasterketarako bilera gaur

Gaste elkarteak deituta, gaur 20.00-etan bilera egingo da Portalean, 2. solairuko ikastaro gelan. I. Aste Haundixa antolatzeko ahaleginetan dabilen elkartetik adierazitakoaren arabera, "goitibehera lasterketan parte hartzea pentsatzen diharduten koadrila guztiei bilerara agertzeko eskatu nahi diegu. Izan ere, lehen hartuemanerako bilera honetan parte hartzen ez badute, goitibehera lasterketa I. Eibarko Aste Haundixaren programatik kanpo gera liteke. Erabaki hori hartu behar ez izatea espero dugu, hainbat lagunek dagoeneko interesa erakutsi baitute eta jende askori gustatuko litzaiokeelako lehen egiten zen ekitaldi hori berreskuratzea".

Gaurko bileran, besteak beste, lasterketaren ibilbidearen inguruko proposamenak aztertzeko asmoa dute. Gasteko kideez gain, bileran Josu Azpikueta horrelakoen antolaketa esperientzia handia duen gazteak hartuko du parte. Joateko aukerarik ez izatekotan, giroa-laia@gmail.com helbidera mezua bidali daiteke antolatzailleekin harremanetan ipintzeko.

Sanjuanetarako prestatzen

Bestalde, Udalean ere aurtengo San Juan jaietarako ekitaldiak lotzen dabilta. Azken urteotako martxari jarraituta, ohiko ekitaldiei talde ezagun baten kontzertua gehituko diete. Aldaketarik egon eze-



Los Suaves taldeak ekainaren 21ean joko du.

an, ekainaren 21ean Los Suaves taldearen kontzertuak girotuko ditu jaiak. Liskerren emanaldiak eta oraindik zehaztu barik dagoen beste talde batek osatuko lukete kontzertu-eskaintza.

Debabarrenako turismoa Bartzelonan

Atzo Bartzelonan zabaldu zen kataluniako Nazioarteko Turismo Azokan gure eskualdeko eskaintza turistikoa aurkeztuko dute. Domekara arte iraungo duen azokak 207.000 bisitari jaso zuen iazko edizioan eta aurte ere kopuru horren bueltan ibiltzea espero dute antolatzailleek. 75 herrialdeko eta estatuko autonomia erkidego guztietako ordezkariak 1.500 erakustokitan bildu dituzte. EAEko estandean 3 lurraldeetako eta euren hiriburuetako informazio orokorra eskeintzen dihardute. Gipuzkoa Kostaren eskaintzaren barruan, Debabarrenak bere kosta eta barnekaldeko lekurik erakargarrien berri emango dio jendeari.

Eskualdeko turismoan Kataluniatik datozen turistek duten garrantzia kontuan izanda, hitzordu berezia da Bartzelonakoa Debabarrenarentzat. Aurten Mutriku, Deba eta Zumaia bitarteko kostaldean sortu berri den 'Flysch-aren ibilbidea' aurkeztuko dute eta, horrez gain, eskualdeko produktuekin osatutako ibilbide Gastronomikoak promozionatuko dituzte. Bide batez, www.debabarrenaturismo.com zabaltzen ahaleginduko dira.

Bisita gidatua txotxongilo erakusketan

Zapatuan, 18.30etan, Corrado Masaciren 'Zirkua eta txotxongiloak' erakusketaren bisita gidatua egingo da Portaleko erakusketa aretoan. Erakusketa domekara arte egongo da zabalik, 18.30etatik 20.30etara.





**NEURE BURUA NIK NEUK
GIDATZEKO PREST!**



WWW.MONDRAGON.EDU/PREST

PREST



**MONDRAGON
UNIBERTSITATEA**

2008
berrikuntza urtea
euskadi
año de la innovación

“Orain hasi da jendea ahozko ondarea baloratzen”

Euskal Herriko Ahotsak proiektua eta Ahotsak.com webgunea aurkeztu ziren herenegun Donostiako Koldo Mitxelenan. Aurkezleen artean Aintzane Agirrebeña Badihardugu Euskara Elkartekoa zegoen, izan ere, elkarte hau da proiektu honen eta webgunean ardura daramana. Euskal Herriko ahozko ondarea eta herri hizkerak katalogatu eta hedatzea da euren nahia.

AINTZANE AGIRREBEÑA, BADIHARDUGU EUSKARA ELKARTEA

- Euskal Herriko Ahotsak proiektua aurkeztu zenuten herenegun. Zertan datza?

Aurkeztu berri ditugunak Euskal Herriko Ahotsak proiektua eta Ahotsak.com webgunea dira. Proiektua eskualde mailan hasi zen, Badihardugu eskualde mailako elkarte delako. Horrela, Bergaran hasi ginen eta pauso bi eman genituen; bata, grabaketa zaharrak jasotzea eta, bestea, bideo-grabaketa berriak egitea. Konturatu ginen eskualde mailan grabaketa asko zegoela eginda proiektu askotarako, eta pentsatu genuen ona zela horiek guztiak batzea, batera katalogatzea eta abar. Azken finean, norbaitek lanen bat edo egin behar badu, jakin dezan herrian zer dagoen eginda. Bergaran, adibidez, grabazio asko zegoen eginda, orduan, zinta zaharrak jasotzen hasi ginen, hauek katalogatzen eta graba-

keta berriak bidez egiten, izan ere, irudiak asko laguntzen du. Hau eginda, inguruko herrietatik deitzen hasi ziren eta iaz aldaketa bat egon zen, eskualde kanpoko grabaketak hasi ginelako jasotzen. Horrela, Gipuzkoan gutxi landua izan zelako, bertan hasi ginen lanean eta hortik Euskal Herri osora zabaldu ginen.

- Zeintzuk dira proiektu honen helburuak?

Ahozko ondarea jasotzea eta honekin batera etnografia, ohiturak, historia eta abar. Esaten da Gerra Zibilak asko moztu zuela, beraz, gerraurreko kontuak jaso nahi ditugu eta horregaitik elkarrizkatzatzen ditugu pertsona nagusiak. Horrela, euskera aberatsa jasotzeaz gain, historia ere hartzen dugu.

- Nolako lana izango da metodologikoki?

Lehenengo pausoa, zinta zaharrak badaude, zinta zaha-



rrak jasotzea izaten da. Bestela, bidez egiten ditugu elkarrizketa berriak eta, bai zinta zaharrak, bai berriak, kodifikatu egiten dira. Minutuz minutu laburtzen ditugu eta hor bi edo hiru minutuko pasarteek zein lehenetasun duten markatzen dugu, izan ere, pasarte guztiak ez dira erakusteko modukoak izaten. Ondoren, gai-kode bat ematen diogu pasarte bakoitzari, gai zerrenda bati lotuta dagoena; horrela, webgunean gaika, herriko edo hizlarika bilaketa bat egitea errezten da. Gainera, lehenetasun handiena duten pasarteak transkribitzeko, audioa edo bideoa jartzeko aukeratzen dira.

- Proiektuak amalera bat izango du edo etengabeko gauza bat izango da?

Uste dut etengabeko gauza bat izango dela. Zinta asko bildu ditugu eta urteetan zehar horiek lantzen ibili gara, baina grabaketa berriak ere egiten jarraitzen dugu, beraz, ez da amaitzen. Hala ere, kontuan hartu behar da zein baliabide dugun, zein laguntza jasotzen dugun eta honetan jendea lanean dabilen ala ez.

- Badiharduguk hartuko du lanaren ardura.

Bai, Badihardugu dago hor atzean baina beste batzuekin elkarlanean. Webgunea gure kontura egin dugu, Code&Syntax-ek lagunduta, baina besteek ere erabili ahal izango dute.

- Beraz, teknologia berriek kontu zaharrak mantentzen lagunduko dute?

Bai eta zabaltzen ere. Azken finean, webgunea kontsultarako dago. Egia esan, gaur egun teknologia berriekin oso erraza da gauzak grabatzea eta abar.

- Ahozko ondareak duen balioa ondo baloratzen da?

Orain arte ez da ondo baloratu eta orain hasi da jendea konturatzen duen balioaz. Herri askotan bekak atera dira euskera aztertzeko, grabaketak egiteko eta abar. Gu hortan gabizenetik eta proiektu hau aurkeztu dugunetik elkarlanerako eskaera asko jaso ditugu. Herenegun aurkeztu genuen eta eskaerak jasotzen hasi gara. Ikusi dugu, azken urteetan, Udalek interesa agertu dutela gai honen gainean, ikusi dutelako ahozko ondarea galtzen ari dela eta jaso gabe geldituko dela. Zergaitik? Adibidez, gerraurreko kontuak jasotzeko gero eta aukera gutxiago dago.



50 urte dantzan... eta jarraitzeko prest

Horrela agertu dira Kezka dantza taldeko dantzariak, taldearen sorreran 50. urteurrena ospatu berri duten honetan. 1958ko apirilaren 13an egin zuen bezala, 50 urte geroago, Eibarko Klub Deportiboko dantza taldeak Arraten emanaldia eskaini zuen. Taldeko kideek Arrateko zelaian soka-dantza eginez ospatu nahi izan zuten mende erdiko bizitza.

Domekan, eguerdiko 13.00ean, Kezka dantza taldeko dantzariak Arrateko zelaia irten ziren eta Eibarko dantza zaharrenetarikoa, soka-dantza dantzatu zuten. Kezkako kideek azaldutakoari jarraituz, "lehenengo mutilek atera zuten soka eta, ondoren, neskek ere atera zuten dantzarien soka zelaira. Kezkako txistulariek, Andoni Altzibarrek, Iñaki Baruak eta Felix Elortzak jardun zuten musikari lanetan. Eta, ekitaldia amaitzeko, Adolfo Jainaga eta Inma Albizuren trikitixaren doinura dantzatu genituen fandango eta arin-arina".

Horrela gogoratu nahi izan zuten Eibarko Klub Deportiboko dantza taldeak orain mende erdia egindako lehen emanaldi hura: "1958ko apirilaren 13an egin zuen estreinaldi ofiziala Eibarko Klub Deportiboko dantza

taldeak. Finalista eguna ospatu zen Arraten eta hilabete batzuk lehenagotik Gregorio Santa Cruz maisuaren esanetara ensaiatzen ari zen taldearen aurkezpen ofiziala izan zen egun hartan eskainitako erakustaldia".

Harrez gero hamaika emanaldi eskaini dute Kezkako dantzariak eta belaunaldi ugarirentzat euskal dantzak ikasteko eskola bikaina izan da (eta hala dirau gaur egun).

Urteurrena lanez lepo

Kezkako dantzariak azaldu dutenez, "proiektuz eta lanez lepo harrapatu gaitu 50. urteurrenak eta, horregatik, propio urteurrenari begira ez dugu momentuz ekitaldi askorik prestatu beharrik izan. Urteurrena ospatzeko modu hoberik ez dugu ikusten, gainera, proiektuz, lanez eta ilusioz beteta".



Mende erdiko ibilbidea

Historian atzera eginez, horrela gogoratzen dute taldearen sorrera: "1958an, Juan San Martin-en proposamenari jarraituz, Eibarko Klub Deportiboan batzorde berria sortu zen. Batzorde Artistiko-kulturala zen, eta bere jardunen artean dantza izan zen batzorde horretan gogor hasi zena. Gregorio Santa Cruz dantza maisua izendatu zuten arduradun. Eta berak jardun zuen dantza maisu lanetan, bai gerra aurreko azken urteetan Batzokiaren hauspoan antolatutako dantza taldeetan, bai gerra ondorengo urteetan Sección Femenina, Educación y Descanso eta Acción Católica moduko erakun-


deetan antolatu zituzten dantza taldeekin. Santa Cruz berarentzat poza izan zen aurrekoen kutsu frankista edo elizkoirik ez zuen talde baten hauspoan dantza taldea antolatzea".

Lanerako gogoz

Azken hamar urteotan Kezka Dantza Taldean Euskal Herri osoko dantzak ikasi eta erakutsi dituzte: "1979tik lanean jardun zuen taldeak dantza ondare zabala laga zigun, besteak beste Gipuzkoako Brokel-dantza, Bizkaiko dantzari-dantza, Iribas-eko ingurutxoak, Lizarrako Larrain-dantza, Oñatiko arku-dantza eta Zumarragako ezpata-dantza".

1990ean Elgoibarko Haritz Euskal Dantzari Taldearekin jarri ziren harremanetan, "dantza gehiago ikasteko asmotan. Gipuzkoako uztai handi dantza ikasi genuen. 1991an Kezkako dantzari talde bat Elgoibarko taldearen ensaiotara joaten hasi zen, eta gaurdaino sendotzen jarraitu duen harremana hasi zen".

Mende erdia bete berri, aurrera begira claude Kezka dantza taldeko dantzariak, euskal dantzei bultzada emateko lanean jarraitzeko prest. Zorionak!



Arrate, 2008ko apirilaren 13an. Eibarko Klub Deportiboko Kezka dantza taldea.

JOSE MARI GOROSTEGI ZABALA
apirilaren 12an hil zenaren sendikoen izenean

**ESKERRIK ASKO hileta-elizkizunetara joan
eta samin-agurrak bidali dizkiguzuen guztioi**

Haren aldeko irteera meza hilaren 20an, domekan, egingo da Karmengo parrokan, eguerdiko 12.00etan



Bai Industriari! izeneko ekimena martxan ipiñi barri dau Debegesak, beste hainbat agenterekin alkarlanian. Aurreko hillian programaren barri emoteko prentsaurrekuan aurreratu eben moduan, gure eskualdeko industriari bultzadia emoteko ideia billa, mahaingurua egiñ eben martitzen goizian. Mahainguruan partu ebenen berbak Eibar eta inguruko herrixetan industriaren sektoriak bizi daben egoeraren erretratua emoten deskue: hamengo tailarretan biharra egitteko eskatzen dan espezializaziñua dakan jendiaren premiñia dago. Bestela esanda, azken urtiotan enpresarixak kostata topatzen dabe oiñ arte gure ekonomixaren ardatz izan diran hainbat lanpostu bete ahal izateko. Egoeraz jabetzen diran arren, horri bueltia emoteko soluziño billa dabilta.

Z enbakixak argi dagoz. Debegesako arduradunak emondako datuen arabera, "2010. urterako, erretirua hartzen daben 10 laguneko, lanpostu horrek betetzeko moduan 6 lagun baiño ez da izango".

Kezka horrek bultzatuta, martitzeneko mahainguruan batutakuak euren ikuspegi-a azaldu eben. Enpresak ordezkatzan Iñigo Pérez Arregi (EPC), Carlos Abad (Urkotronik) eta Antonio Berroeco (Ojmar) izan zirean; ikastetxiak ordezkatzan, barriz, Elgoibarko BHilko Iñaki Konde eta Eibarko Injeniaritza Eskolako Jose Ignacio Borinaga egon ziran; Udal ordezkariak Alfredo Etxeberria Elgoibarko alkatiaria eta Mertxe Garate Eibarko Udaleko Industria zinegotzixia izan ziran; eta, danen jarduna moderatzen, Euskadiko Automozioño Klusterraren arduraduna, Aitor Ruiz aritu zan.



Eskualdeko INDUSTRIAREN egoeriaren ARGAZKIXA

Azken honek gaixari sarrerria egin zetsan, gaur egunian egoeria zertan dan laburbiltzeko ahalegiñetan. **AITOR RUIZ** en berbetan, "profesionalak falta dira, EAEko eskaeriari begiratuta, 4.000 lagunuen faltan gagoz. Bestalde, jendiaren formaziñua daguan biharrera moldatu bihar da. Andrendako ez da erakargarrixa industriari biharra egittia, baiña biharra garbixia da, ona, ordutegi eta soldata onekin".

Azitango industrialdian bertan daguan EPC enpresako **IÑAKI PÉREZ** ek zuzenian jo eban arazuaren sustraixetako batera: "Oiñarri ona daukagu, baiña formaziño

2010. urterako, erretiratzen dan 10 laguneko, lanpostu horrek betetzeko sei lagun baiño ez da egongo

tekniko egokixia dakan jendia bihar dogu. 10 lagunetik 9k ez daki ingelesez, eta gaur egunian ezin leike holakorik onartu, kanpora begira jarduten dogu eta horretarako prestatu bihar gara. Horrekin batera, jendia etorkizunera begira, etorkizuneko enpresan biharra egitteko preparatzen hasi bihar da, horretan kale egitten dogu. Eta enpresia kanpora zabaldu bihar da, ikasliak-eta biharra zelan egitten dan ikusteko aukeria euki bihar dabe".

Urkotronik-eko **CARLOS ABAD**-en iritzi, "soluziñooren bat topatzeko danon arteko alkarlana bihar-biharrezkua da. Gero eta gehixago kostatzen da preparauta daguan jendia topatzia. Diagnostikua egin dogu, oin biharrian hasi bihar gara".

Jende premiñia ez ei da bakarrik industriari eragiten detsan arazua, **ALFREDO ETXEBERRIA** Elgoibarko alkatiari entzun-



- Pin-ak
- Metxeroak
- Kamisetak
- Boligrafoak...

PUBLIZITATE ARLOKO eta ENPRESETAKO OPARIAK
Armagin 3 - behea

☎ eta faxa: 943 70 14 97 Publi.resa@euskalnet.net



1957an sortua
GOZOTEGIA

- **ETXERA** banatzen dugu
- Ezkontza eta despedidetarako **TARTAK**

Julian Etxeberria, 6
Tel. 943 20 24 51

Industriak dakan premiñia betetzeko gai izango dan jendia preparatzeko gauza izan bihar gara

da: "Industrian pasatzen dana beste mailla batian Udaletan be pasatzen da, udaltzain postuak betetzeko arazuk dagoz. Enpresak lanpostu erakargarixak egin bihar ditue eta geuk, barriz, udaletatik kolaborau egin bihar dogu ikastetxiekin. Formaziño profesionalerako jendia motibau egin bihar da, enpresan pieza klabia izango dala esan, urrutira aillegau leikiala".

Injeniaritza Eskolako **JOSE IGNACIO BORINAGA** bat etorri zan jendia motibatzeke premiñaren inguruan: "Ikasketak amaittu eta jendiak ixa seguru topatzen dau biharra, ondo kobranta, baiña karrera teknikuak ikasteko estimulorik ez dago, beste lanbide batzutan be antzerakua irabaziko dabelako. Geurian ingelesa mailla teknikan emoten dogu eta, ikasliak gehixago ikasi nahi badau, bere kontura egitten dau, ikasketetako lau urtetik bat hizkuntzari eskintzeko modurik ez dago".

Debegesako **JUAN ANGEL BALBÁS**-en berbetan, "konpetitibo ez izateko arazoietako bat ingelesa ondo ez jakitiarena da. Ingelesa ondo irakasteko ondo jakin bihar da eta ez da halakorik pasatzen, ez dogu pentsatzen hizkuntzia konpetitzeko elementua dala eta holan txarto goiaz".

Andrak erakartzeko ahalegiñak haundittu bihar dirala gehittu eban Balbás-ek: "Emakumien partehartzia industrian oso



FELIX MORQUECHO

Mahaingurura bildutakuak gaur egun industriak bizi daben egoerari bueltia emoteko soluziño billa jardun eban.

txikixa da, gure gurasuak ezugutu eban industriak eta gaur egunekuak zerikusi gitxi dake eta honetan andrak badake zer esan".

Gizartiaren eboluziñuarekin be kezkatuta azaldu zan: "Hirugarren sektoreruntz doa eta andrak nahixago izaten dau zerbitzu arluan biharra egittia. Bestalde, oiñ arteko bizitza kalidadiari eutsi ahal izateko industria biharrezkua da, bakarrik zerbitzueri begira ezin leikixo mailla horri eutsi".

Ojmar enpresako **ANTONIO BERROE-CO**-ren ustez, oindiok be industriak prestigio ona dauka gurian: "Eskualdian oindiñok be industria-sektoreko parte izatiaren harrotasuna nabari da eta badagoz zerbitzuak eta merkataritza alde batera laga eta industriara jua diran andra asko".

Elgoibarko institutuko **IÑAKI KONDE**-k hizkuntza arloko aurrerapausuak ekarri zittuan gogora: "Formaziño profesionalian

irakasliak liberatzen dira, ingelesa ondo ikasi eta gero eurak klasiak hizkuntza horretan emoteko. Halanda be, gizartian prestigioa lortu bihar dau oindiok, formaziño profesionalerako ikastetxietan matrikula kopuruak betetzeko arazuk dagoz eta horri kanbixatzeko orientadorien biharra inportantia da. Kanpotik datorren jendiekin espabilau egingo gara, eurak ikasteko prest egoten dira-eta".

Amaitzeko, **MERTXE GARATE** industria ziñegotzixak instituziño eta bestelakuen arteko alkarlana azpimarratu nahi izan eban: "Kulturalki gizonak industrian biharra egiñ izan dabe, baiña andrak lan egitten badau, premiñia dakalako dala pentsatzen dabe askok, hori kanbixau egin bihar da. Autokritikia egin bihar dogu danon artian. Eta enpresak zabaldu, jendiak ezagutzeko, European emaitza onak lortzen dihardue".

Herri Irratia Eibar
Loyola Media

S.D. Eibar - Castellón C.F.

Jarraitu partidua:
Borja Rodríguez
eta Herri Irratiko
kiroletako taldearekin

90.7 Fm

Aprilak 20, domeka 18.00etan



Gliese 876 izarraren inguruan orbitatzen diharduen planeta bat topatu dau Europako Behatoki Australeko (EBA) talde batek. Izar horrek eguzkixan antza daka eta planetiak Lurrana. Topatutako planetia gure sistematik kanpo aurkitzen dan txikixena da, Lurrak baiño bost bidar masa gehixagorekin eta erradixo bikoitzakin.

Lurretik 25.000 argi-urtera aurkitzen da planeta hau, 'Super-Lurra' deittu dabena, baiña aurkikuntza honek galaxia osuan Lurraren antzeko planetak daguzela aditzera emoten dau zientifikuen esanetan. Toulouse-Tarbeseko Astrofisika Laborategiko Pascal Fouquék esaten dau planeta honetan zailla dala bizitzarik egotia, bertako tenperatura oso baxua dalako. Lisboako Behatoki Astronomikoko Xavier Bonfilsek, berriz, kalkulatzen dau 'Super-Lurreko' batzbesteko tenperatura 0° eta 40° zentigradukua dala, eta ura likidua izan leikela bertan. Ondorioz, bizitzia egon leikela. Unibertua oso haundixa da eta zientifikuek esperantzia dake holako planeta gehixago egon leikezela, eta Lurrantza dakaten gehixago bebai.



Arcadia Colino 60 urte, etxeoandria

Neri begittantzen jata zeozer egongo dala hor kanpuan, baiña ez dot uste pertsonen antzia edo edukiko dabarik. Bizitzia daguala siñistia gata egitten jata, izan leike baietz, baiña ez dakitt zer pentsau. Ikusten ez badot gata egitten jata siñistia.



Jorge Alarcón 32 urte, injenierua

Ez, ez dot uste lurretik kanpo bizitzarik daguanik. Badakitt Lurrantzeko planeta bat topatu dabela espazian, baiña halanda be ez dot uste bizitzarik egongo danik. Egixa esan ez dakat bai edo ez daguanik esateko oiñarri zientifikorik, baiña ezetz uste dot.



Fernando Valenciano 37 urte, espezialistia

Ideiarik bez. Zeozer egongo da, baiña ez dakitt zer. Ez dot imajiñatzen hemengo modoko bizitzarik egongo danik, izatekotan gauza arruak izango dira, zelulak eta holako gauzak. Lurrantzeko planeta bat daguala entzun dot, baiña eguzkittik oso hurbil daguala uste dot.



Nerea Lluvia 13 urte, ikaslia

Ba, ez. Planeta barri bat aurkittu dabe Lurrantzia dakana, baiña neri begittantzen jata ez daguala bizitzarik hemendik kanpo. Begittantzen jata holako gauza danak jendiaren asmakizunak dirala, ezer gehixago.

Gure planetatik kanpo bizitzarik daguala uste dozu?

EGOITZA NAGUSIA
Bidebarrieta 20 - behea

FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

- Tanatorioa eta Errausketa labea Elgoibarren (Sigma poligonoan).
- Partikular, mutua eta aseguru etxeei zerbitzuak
- Koroak - Eskelak - Urteurreneko eskelak
- Euskal Herri osoko ospitaletan hartzen zaitugu
- Nazio eta Nazioarteko trasladoak

Mugica Ehorzketa
Funeuskadi taldea

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951

Helbide berria
URKIZU PASEALEKUA, 13
Orbeako dorreetako
1. solairua

EIBAR

CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA
☎ 943 12 02 00 Faxa: 943 12 02 04

1 Kardiologia	10 Radiologia
2 Zirugia	11 Traumatologia
3 Dermatologia	12 Barne Medikuntza
4 Dietetika eta Nutrizioa	13 Alergologia
5 Análisi Klinikoak	14 Koloproktologia
6 Ortodontzia	15 Urologia
7 Otorrinolaringologia	16 Estetika unitatea
8 Pediatria	17 Erizaintza
9 Psikiatria	

Poesia emanaldia liburutegi berritua inauguratzeko

Juan San Martin Udal Liburutegia orain egun batzuk zabaldu dute, azken hilabeteotan espazio handiagoa lortzeko egin diren lanak amaitu eta gero. Berrehun bat metro gehitu dizkiote liburutegiari eta, horri eta egin diren beste aldaketa batzuei esker, zerbitzu hobea eskainiko du aurrerantzean. Besteak beste, gazte eta haurrentzat bereziki pentsatutako gune eta zerbitzuak sortu dituzte. Inaugurazio ekitaldia martitzenean izan zen: Antzerki Maitaleak taldeko kideek poesia emanaldia eskaini zuten, jende asko erakarri zuen ekitaldian.

Juan San Martin liburutegia jende aurrean ezagutzera emateko ekitaldiaren ardatza poesia emanaldiak osatu zuen. Ernesto Barrutia, Maite Lorenzo eta Eduardo Falces aktoreek, Naome Soud Ormaetxea biolinarekin lagun zutela, Federico García Lorca, Gustavo Adolfo Bécquer, Luis de Góngora, Francisco de Quevedo, Mario Benedetti eta Miguel Hernándezen testuak errezitatu zituzten. Horrez gain, Iñaki Arriola alkateak eta udal arkitektuak zerbitzu berrien eta instalazioetan egindako aldaketan berri eman zuten eta han zeudenak liburutegia erabiltzera animatu zituzten.

Txiki-Txokoa

Liburutegiari toki gehiago emateaz gain, espazioa beste modu batean antolatu dute, zerbitzu bakoitzari bere tartea eskaintzeko. Aldaketei esker, ume eta gazteek eurentzat bereziki pentsatutako eta prestatutako gunea erabiltzeko aukera izango dute aurrerantzean: 3 eta 14 urte bitarteko haurrentzat Txiki-Txoko izeneko gunea sortu dute liburutegian bertan: 5 urtetik beherako umei zuzendutako aretoa da Txiki-Txokoa. Irakurzaletasuna eta liburutegia erabiltzeko ohitura txiki-txikitatik lantzeko aukera izango dute hortxe, gurasoen laguntzarekin. Eurentzat egoiak diren liburuak eskuragarri izango dituzte eta, horrez gain,

adin horretako umei egokitu-tako altzari eta jolasekin hornitu dute gune berria.

Liburutegia handitu aurretik, gazteentzat pentsatuta zegoen gunean 32 umerentzat tokia zegoen eta orain, berriz, 48 ume jarrita egoteko txokoa dago eta, horrez gain, lehen baino ordenagailu gehiago izango dute eskura, euren lanak eta bestelako kontsultak egin ahal izateko.

Erosotasuna eta zerbitzu berriak

Hori aldaketa nabarmenetako bat da, baina ez bakarria: espazioa bestela antolatzeari esker, irakurketarako mahaien eta apalen artean tarte handiagoa laga dute, jendea erosoago egoteko, eta hemeroteca berria egokitu dute, liburutegira egunkari eta aldizkariak irakurtzera joaten direnentzat. Beste-



Antzerki Maitaleak taldekoak, emanaldiaren une batean.



Jende mordoak gerturatu zen martitzenean Portalera, liburutegi berritua ezagutu eta poesia emanaldiarekin gozatzera.

APIRILERAKO EKITALDIAK

Apirilak 23, 19.00etan
Juan San Martin eta beste egile batzuen **olerkiak**, Iñaki Aldekoa eta Felipe Juaristiren eskutik.

Apirilak 24, 18.00etan
'Familiak ere kontatzen du': heldu batek lagunduta, 3-5 urte bitarteko umeentzat pentsatutako ekimena, haurrak liburutegira eta irakurketara ohitzen joateko. Umeen liburutegian.

Apirilak 26, 18.00etan
Ipuin kontalaria. 'Kandelen argipean', Begoña Gomezekin. Umeen liburutegian.

la, bakarrik irakurtzen egotera joan nahi duenak horretarako gune aproposa aurkituko du. Lkusentzunezkoei eskainitako gune berezia ere atondu dute eta taldeko lanak egitera doazentzat, berriz, lehen baino

toki gehiago laga dute. Gure herriarekin harreman zuzena duten lanak, berriz, Eibarri eskaintako txokoa batu dituzte. Horiekin batera, kontrolerako gunea eta sarrerak berritu dituzte (umeen liburutegira zuzenean sartzeko sarrera ipini dute tabernaren aldamenean).

Wifia

Zerbitzuei begiratuta, liburutegian wifia dagoenez, etxetik ordenagailua eraman nahi dutenek internetera sartzeko aukera dute, doan eta aparteko ezeren premia izan barik. Izan ere, azken urteetan gero eta jende gehiagok erabiltzen du ordenagailu-eramangarria lanak eta bestelakoak egiteko. Egunetik egunera zerbitzu hobea eskaintzeko gogoak animatuta, datozen urteotarako helburuak finkatu dituzte liburutegiko arduradunek: gaur egun erregistratuta dauden 47.000 tituluei beste 13.000 izenburu berri gehitzeko asmoa dute, 60.000 izenburura ailegatu arte. Horretarako liburuak, CD-ak, bideoak, aldizkariak, komikiak eta bestelakoak erosten jarraituko dute.

Liburutegiak lanak hasi aurretiko martxari jarraituko dio aurrerantzean, ordutegiari begira: astelehenetik barixakura 09.00etatik 13.30etara eta 16.00etatik 20.30etara eta zapatu, domeka eta jai egunetan, berriz, 10.00etatik 13.00etara eta 16.00etatik 20.00etara.

GREMIOEN GIDA



ANTENAK

BALATZ S.L.
SAT, TVC, Bideoa

Bidebarrieta 37 Tfnoa. 943 20 05 08
Faxa. 943 20 04 94

Ego Gain z/g
Tfnoa. 943 12 73 50
Faxa. 943 20 73 60
www.trinmer.com

trinmer

TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK

AROTZAK

IMAR AROZTEGIA

- Barruko atek eta blindatuak
- Oholiza eta parket mugikorak
- Armairu enpotratuak eta neurriak
- Sukalde eta elektrodomestikoa

Olaso, 15
55-A-1 pabilioia
ELGOIBAR

Tfnoa.-Faxa: 943 53 14 71
Mobilak: 609 054 978 / 646 905 564

IÑAKI

Egurrezko mota guztietako lanak Atek - Tarimak Altzariak

Milaflores 10 Tfnoa. 943 20 35 55

Aroztegia Ebanisteria
Obra aroztegia

ARPINTERÍA NARBAIZA S.L.

Egiturak, barruko eta kanpoko atek, armairu enpotratuak, tarimak, parketak, rodapietak, eskilarak, miradoreak, moldurak, oholak, janbak, leihoak

Otaola Etorbidea, 27 Tel. eta Faxa. 943 201 757

SUKALDE ALTZARIAK

ARROZTEGIA
Iparragirre Anaiak

F. Calbetón, 4 behea Tel. 943 20 29 27
Tailerra: Apalategi auzoa Tel. 943 12 01 92
Mobila: 657 79 56 78

AROTZAK

ulmar S.L.
metalezko eraikuntzak

metalezko eraikuntzak
aluminiozko eta pvc-ko aroztegia

ulmar, s.l.
Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnoak: 943 12 13 67 Faxa: 943 12 01 50

ERAKUSKETA
EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

ELEKTRIZITATEA

ATEZAIN AUTOMATIKOAK - ARGIZAPENA -
MUSIKA - ETXEETARAKO ETA
INDUSTRIETARAKO INSTALAZIOAK

ELECTRICIDAD
I B A R S.L.

INSTALAZIO ETA MUNTAIA
ELEKTRIKOAK

Urkizu, 32 behea Tel./Faxa. 943 12 73 75
Mobila. 607 71 38 74 / 607 71 38 73

GURIA

ELEKTRIZITATEA

* Muntaiak eta proiektu elektrikoak

Matsaria 2 - 7. pabilioia
Tel. 943 70 08 95 - Faxa. 943 82 00 27
www.electricidadguria.com

• Barne apainketak
• Mantenimendu eta automatismoak

MANTELEC, S.L.

Ubitxa 7-11 Tfnoa. 943 70 10 44
Faxa. 943 20 85 48

ERREFORMAK

Obra gauzatzeko proiektuak
Obra zibila eta eraikuntza
Obra osoa, giltza eskura
Gremioen koordinazioa
Beherehazteko etxeetan
Etxeetako errehabilitazioa
Ixtxetako errehabilitazioa

AILA
FORNADURA ENGENNERIA

ELGETA-KALE (Punto y Aparte-ren ondoan)
Tel. 647 426 352 / 943 530 391 / 670 957 799
Faxa. 943 530 392 allaproiektuak@hotmail.com

ALBIDE

943 200 443
605 772 467

Barne dekorazioak
Aurrekontuak konpromiso barik

JUAN GISASOLA, 5
GREMIOEN GESTIOA

ESTUDIOS ARRILLAGA

Proiektu eta erreformak
Gremioen zuzendaritza

ARRAGUETA 12 - Eibar- ROSARIO 15 - Elgoibar-
Tel. 943 20 06 98 Tel. 943 74 40 19

GARBIKETAK

escudero

INDUSTRIA GARBIKETA

Otaola Etorbidea, 13
Tfnoa. 943 12 71 08 Faxa. 943 20 67 94
www.escudero.euskalnet.net

TREJO
GARBIKETAK S.L.

Tel: 943-752557
Faxa: 943-752556
16 Postakutxatila - Sorluze

Garbitzeta eta mantenimendua

Informazio gehiagorako



943 20 67 76



HORNIKUNTZA



**GARAIONDO
BASTIDA**

hornikuntza industrialak

Telef. 943 12 02 08
Faxa. 943 12 02 12 **Barakaldo 9^{an}**

KRISTALAK



ACHA
Kristaldegia

KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK
ERREKATXU 3^{an}

eta faxa: 943 20 39 03

ARREGI

Juan Gisasola, 2
Tel/Fax: 943 20 79 37
Mobilak: 675 70 87 52 / 670 73 61 00

**MARGOLARIAK
GOI MAILAKO DEKORAZIOA**

IGELTSEROAK

**JOSE MARIA IRA-
ZABAL, S.L.**



Azitain Industrialdea, 3
H Pabilioia
Tfnoa. 943-120108

*ERAIKUNTZA ETA ERREFORMAK
IGELTSERITZA ETA
GREMIOEN KOORDINAKETA*
www.irazabal.net

PINTURAK



Tfnoa. eta Faxa.
943 20 05 94

T. Etxebarria, 8 - behea

Pintura orokorra
Margotutako paperak
Zoruen kolokazioa
PVC zoruak
Maketak
Alfonbrak
Kortinak
Etxerakoak
Osagarriak

Pintura
**Goi mailako
dekorazioa**

Pago Kalea, 35 DURANGO
Tel. / Faxa: 94 620 03 01
Mobilak: 607 41 71 81
666 74 30 98



ITURGINTZA

INDA iturgintza



**UR, GAS eta
KALEFAKZIO
INSTALAZIOAK**

- Proiektuak eta aurrekontuak
- Bainu eta sukaldeen erreformak

Tfnoa eta Faxa: 943 12 18 64 (tailerra)
Mobila: 669 29 34 63

Asua-Erreka, 2



**PINTURAS
ARRATE, S.L.**

ARANE, 13 parrate@terra.es
Tel. 943 20 41 04 Faxa: 943 70 06 89

- Nexa Autocolor
- Herberts industrial
- 3M produktuen banatzailea

SARRAILAGINTZA



Era guztiako sarrailen salmenta eta mantenua
Segurtasun-instalakuntzak
Sarrailen egokipenak
Segurtasun kutxak
Era guztiako giltzen kopiak
Trabatutako ateak askatzen ditugu

Arragueta 3
Tfnoa. 943 70 13 91 Faxa. 943 20 86 99

teen-ajeak



Adriana Gabilondo eta Andrea Garcia La Salle Aritzaingo ikasleak dira. Antzerki emanaldia eskaini zuten Herkumtra Esparruan, Proeza GKEari laguntzeko.

“Irabazitakoaren erdia Boliviara doa”

- Nolako izan zen Hezkuntza Esparruan Interpretatu zenuten antzezpena?

(Biak): ‘Sabina y las brujas’ zuten izenburua.

(Andrea): Gure adineko neska batek hiru sorgin ezagutzen ditu eta bi gurari eskatzeko aukera ematen diote. Neskak erabakitzen du abentura erromantiko bat izan nahi duela, horrela, amonaren katua mutil bihurtzen da eta abentura erromantikoa izaten dute.

- Zein papel zenuten antzezpenean?

(Adriana): Bera sorgin bat zen eta ni Sabina.

- Arrakasta izan zuen?

(Andrea): Saio bi egin genituen. Goizekora La Salle osoa joan zen. Arratsaldeko-ra joateko, berriz, sarrera ordaindu egin behar zen, baina nahiko jende joan zen.

- Galnera arrazol on baten-gatik egin zenuten.

(Andrea): Irabazitako diruaren erdia Boliviako heziketa proiektu baterako erabiliko da.

- Nola bururatu zitzaizuen antzerkia egitea?

(Andrea): Irakasle bat etorri zitzaigun, antzerkia egitea proposatu zigun eta gu apuntatu egin ginen. Eskolaz kanpoko zerbait izan da.

KIROLA LANBIDE BEZALA

Enpresak ere hezitzen ditu, ikasleez gain, IES Uni Eibar-Ermuak. Normalean, zentru bateko ikasleek ikasketak amaitzean enpresa ezberdinetara joateko aukera izaten dute lan egiteko. Tendentzia hori izan da nagusi orain arte eta gaur egunean ere horrela da kasu gehienetan. Baina gauzak aldatzen ari dira eta ikasleak euren enpresa propioak sortzen hasi dira. Hori da ‘Kirolzale’-ren kasua.

‘Kirolzale’ kirol-ekimenean kudeaketa eta dinamizazioa

ko enpresa bat da, IES Uni Eibar-Ermuak aurrera daraman ‘Urrats Bat’ programaren birtartez sortu dena. Programa honek bere fruituak eman ditu azken urteotan, horrela, ‘Debamatika’ eta ‘Ruibal’ enpresak izan dira merkatuan lekua hartu duten lehen enpresak. ‘Teknotag’, berriz, finkatze prozesuan dagoen enpresa bat da, eta ‘Meeting&Point Academy’, ‘Unai Cebrian’ eta ‘Kirolzale’ bera inkubaketa prozesuan dauden enpresak dira ‘Urrats Bat’-en barruan.



HOROSKOPOA

ARIES

Iraganeko gauza asko gogoratuko dituzu hurrengo egunotan. Nostalgiaz beteriko egunak izango dira eta oso gustora gogoratuko dituzu. Esaten dute iraganeko edozein momentu izan dela hobea goa. Zuk zer uste duzu?

TAURUS

Asteburu beroa pasatuko duzu, Taurus maitea. Desioa, pasioa, ezingo dizute esan gatz eta piperririk ez duzunik. Hori bai, bikoterik ez baduzu bat lortu beharko duzu asteburu bero hori bete ahal izateko. Zorte on!

GEMINI

Noiztik ez dituzu lagunak zerbaitetara gonbidatzen? Ez duzu polsikitik ezer ateratzen zuretzat ez bada! Gero, lagunei zerbait eskatzen joaten bazara, ez zaitez harritu ezekoa ematen badizute, eraiten dena jasotzen baita.

CANCER

Astroak zure alde egongo dira aste honetan. Edozer gauza eginda ere emaitza onak lortuko dituzu. Horrela, aprobetxatu datozen egunak aspaldi pentsatu dituzun gauzak egiteko, dena ondo irten goa zaizu-eta!

LEO

Joan den astean gertatu zitzaizun gauza bat izango duzu buruan datorren egunetan. Kontzientzia ez daukazu oso garbi, baina ez dago atzera bueltarik eta gertatu zena onartu behar duzu. Hurrengoan hobeto pentsatu ezazu.

VIRGO

Egunerokotasunean arazoak izango dituzu datorren astean, hainbat oztopo izango dituzu bidean. Hala ere, gogotsu ekingo diozu asteari eta oztopo horiek gaitzetzeko gai izango zara, hori bai, kontu handiarekin ibili.

LIBRA

Beti esan duzu naturazalea zarela, ozono geruza zaindu behar dela eta abar. Baina orain birziklatu ere ez duzu egiten! Zer kostatzen zaizu ba? Etxean gauzak banatu eta zaborrontzi ezberdinetara bota zaborra, besterik ez.

SCORPIUS

Gehiago exijitu behar diezu ingurukoei. Beti eman eta eman zabilta, eta zer jasotzen duzu zuk? Oso ona zara, argi dago, baina ez zaitez tontoegia izan. Behar duzuna eskatu, merezi duzu-eta. Ez laga barre egitea.

SAGITTARIUS

Irribarre egitea doakoa da eta zoriontsua izatea ere. Beraz, zer kostatzen zaizu haserre egotea baino irribarre egitea? Ondo pentsatzen baduzu, ez daukazu haserre egoteko motibo handirik. Zure zenbakia aste honetan: 10.

CAPRICORNIUS

Agintzeko gogoia piztuko zaizu eta denak zure agindupean egotea nahi izango duzu. Diktadore hutsa zara, edo zuk nahi duzuna egiten da, edo ez da ezer egiten. Estatu kolpea jasango duzu horrela jarraituz gero.

AQUARIUS

Denbora aurrera doa, etengabe, tik-tak tik-tak. Aurrera doa eta zuk ez duzu aurrera egiten, geldi geratu zara denboran. Korronteak ere ezin zaitu eraman. Aurrera begiratu behar duzu, beranduegi izan baino lehenago.

PISCIS

Gaixotzeko aukera asko izango dituzu datorren astean. Duela denbora asko ez zarela ohean gertatzen gaixo egoteagatik eta horrela jarraitu nahi baduzu, badakizu, zaindu zaitez. Astea pasatakoan joango da arriskua.



Jon eta Josu ermurrak dira 'Kirolzale' enpresako sortzaileak.



Kirol-ekimenen kudeaketa

Jon Hernandez Iriondo eta Josu Navas ermurrak dira 'Kirolzale' enpresa sortu dutenak. Ikasle biak Gorputz eta Kirol Ekintzen Goi Mailako Zikloko ikasleak dira eta enpresa sektore horren inguruan kokatu dute, izan ere, kirol-ekimenen kudeaketa eta dinamizazioaz arduratuko dira.

Duela urte bat hasi zen Jon Hernandez enpresa hau martxan jartzen. Jonek kirol-ekimenen inguruan enpresa global bat falta zela uste zuen eta zera pentsatu zuen, "hau da nire aukera". Ideia pentsatu behar izan zuen, Uni Eibar-Ermuan kurtso bat egin eta garatu beharreko guztia prestatu. Bide luzea izan da hasieratik honakoa, baina duela bi edo

hiru hilabete Josu Navas gehitu zitzaion eta eskutik helduta egiten diote aurre erronkari.

Laguntza nahikoa jaso dutela aitortzen du Jon Hernandezek. "Urrats Bat programaren bitartez Uni-ak bulego bat, ordenagailu bat, eta internet eta telefonoa dohainik uzte digu". Zerbitzu-enpresa bat izanik, egin beharreko inbertsioa ez da oso handia izan. "Ordenagailu bat, telefono bat eta langileak behar ditugu, besterik ez".

Bezeroaren esanetara

Kudeaketa globaleko enpresa bat da 'Kirolzale'. "Bezeroak zer nahi duen esaten digu eta guk egin egiten dugu", dio Jonek. Horrela, kirol-ikastaroak antolatu eta eman; kirol-instalazioak eta ur-insta-

lazioak kudeatu; jolas-jarduerak antolatu; kirol-gertakizun eta kirol-txapelketak antolatu, kudeatu eta garatu; animazio zerbitzuak eskaini; eta kirol taldeei laguntza eta aholkularitza zerbitzuak eskaintzen dizkie.

Inkubatzeko prozesuan dagoen enpresa bada ere, etorkizun "ona" ikusten dio Jon Hernandezek 'Kirolzale'-ri. "Behar hori duen jende kopurua gero eta handiago da, eta leku hori betetzeko gaude gu".

Hasteko, patinaje-ikastaro ludikoa antolatu dute (informazio gehiago 64910683 telefonon), jada martxan dagoena. "Nahikoa jendek eman du ize-na eta pozik gaude". Lehen harria ipini du 'Kirolzalek', ea etxe osoa eraikitzeko gai den.



Gure gibela zainduz

Gure neurrigabekeriengatik (janari eta edanari dagokionez behintzat) gehien gaitzartzen den gorputz atala, ezbaierik gabe, gibela da. Iragazki handi honek, elikagaiak prozesatzeko gain, odolak garraiatzen dituen toxina gehienak neutralizatzen ditu. Beraz, orain udaberriaren, indarberri gaitzearen, desintoxicazio txiki bat egitea komenigarria da, gure gorputzeko garbitzaile preziatu hau zaindu dezagun.

Horretarako, hartu behar dugun lehen neurria, gure koipearen kontsumoa murriztea da, besteak beste, gazta, gurina, esnegaina, margarina, arrautzaren goringoa, haragi gorria, hestebeteak, gailetak, opil goxoak,... baita ere frijituak eta saltsako prestaketak.

Baina, badira gure gibela-erentzat erabat kaltegarriak diren beste hainbat elikagai. Ikus ditzagun zein diren:

Alkohola: Alkohola gibela-erentzat, azido urikoarentzat eta tentsio altuarentzat kaltegarria da. **Azukrea eta gozoak:** Adi gozozaleak!!! Gibela ondo ez dabilenean, azukrea eta gozoak alkohola bezain kaltegarri bihurtu daitezke, gibela ezin baititu metabolizatu. Transaminasak altu daudenean gure azukre kontsumoa ere mugatu behar dugu. **Kafea:** Gibelean sor ditzakeen alterazioen ondorioz kolesterola igoarazi dezake. Kafeak tentsioa ere igozten du eta buruko minak edota estres handia dagoenean kaltegarria da. Likido erretentzioan eragina dauka eta zirkulazioarentzat ere txarra da. Bestalde, bada gibela-erentzat sendagai den barazki bat: **Alkatxofa.** Gibelaren bizkortzaile eta behazunaren jariatze prozesuan lagungarri da. Beraz, janari koipetsuen liseriketari ur-gazle dugu. Diuretiko da eta odoleko kolesterol maila jaisten du. Betidanik, alkatxofa hostoak, senda-belar gisa erabili izan dira gibeledako gaixotasunetan.

Silvana Huegun
(NUTROLOGA)



Unai Elorriagaren bisita Aldatzera

Bisita berezia izan zen "SPrako tranbia" liburuari buruz hitz egitera etorri zen Unairena.. Zur eta lur gelditzekoa da liburu bat idazteko urte batez edo gehiagoz ideia jorratzen egotea. Bere ustetan idaztea ez da inspirazio kontua, ideia bat izan eta ongi landu ondoren paperean jasotzea baino. Unai Elorriaga zahartzaroaren ezagule ona dugu eta, berak esana bilduz, "guda tristoraz eta minez beteriko errealitate gordina da eta gu zorteko gaude ez baitugu bat bera ere nozitu".

Bikoitza izan daitekeen maila igoera xakean

Xakeko Klub Deportiboko lehenengo taldeak 1. mailako Gipuzkoako Taldekako Txapelketa bereganatu du eta, modu horretan, Gorengo mailara igotzea lortu du. Ligako azken jardunaldian, eibartarrek 0,5-3,5 irabazi zuten Donostian, hango Fortuna B-ren aurrean. Azken txanda horretan, Jon Aranak, Manolo Lópezek eta Julen Garrok irabazi zuten moduan, Diego Olmok berdindu egin zuen bere

partida. Eibartarren nagusitasuna, hamaika jardunaldi jokatu eta gero, oso garbia izan da: 31 puntu batu dituzte eta eurekin batera igo diren Gros C-ri (27,5) eta Billabona A-ri alde handia kendu diete.

2. mailarako igoera fasean, bestalde, Deportiboko bigarren taldeak 3-1 irabazi zion Fortuna E-ri. Freire, Arroitauregi eta Belar garaile izan ziren bitartean, Baenak galdu egin zuen. Sailkapeneko 2. postuan



daude une honetan, azken txandaren faltan, eta Hernanin jokatu beharreko partidaren berdinketa lortzearekin nahikoa

izango dute mailaz igotzeko. Ikusi behar zer gertatzen den, baina denboraldi bikaina osatu dute gure herriko ordezkariak.



Aitor Bolinagak eta Valdubiecok jendearen laguntza eskertu zuten.

Aixolako urtegiari 23 itzuli ehun kilometro eginez

Aitor Bolinagak eta Juan Bautista Valdubiecok egundoko marka egin zuten Aixolako urtegiari 23 itzuli lasterka eman ondoren. Ehun kilometro eta erdi egin zituzten guztira, eta horretarako bederatzita ordu eta erdi pasata behar izan zu-

ten (09:32:15). Nahiko isilean eraman badute ere saiakera, jende asko joan zen goizetik euren ahalegina ikusi eta animoak ematera. Aixola ondo baino hobeto ezagutzen dute biek, han egiten baiturte biek ere entrena-mentu gehienak. Amaieran pozik zeu-

den biak egindako lanarekin eta "burutik hanketatik baino hobeto" amaitu zutela onartu zuten. Bolinagak 49 urte ditu eta bada hamarkada bat hasi zela maratobietan eta ultramaratobietan. Jokatutako proben artean, Argentinan, Norvegian, Jordanian... izan da.

Leiza-Bengoetxea: buruz-buruko txapelketa Astelenan

Domakero ohikoa bihurtu denez, pelota profesionaleko 1. mailako buruz-burukoaren txapelketako jardunaldi berria izango dugu Astelena frontoian. Leiza bizkaitarrak eta Bengoetxea VI.a nafarrak neurtuko dituzte indarrak oraingoan, oso borrokatua izateko itxura guztiak dituen partiduan. Aurretik, jaialdiko

hasierako partiduan, Gonzalez eta Goñi III.a alde batetik, eta Xala eta Barriola bestetik, bikote bakoitza 22. karroira heltzen saiatuko da. Azken partiduan, bestalde, Uriarte eta Urberuaga bizkaitarrak eta Berasaluze IX.a eta Apeztegia izango dira, nor baino nor. Jaialdia, ohikoa denez, arratsaldeko 17.00etan hasiko da.



Oinatz Bengoetxea bere onena ematen saiatuko da.


Jose Mari Gorostegi Zabala

(JOSE LUIS GURE LANKIDEAREN AITA)

Apirilaren 12an hil zen, 80 urterekin

Gure atsekabea eta elkartasuna adierazi nahi diegu haren senide eta lagunei.

...eta kitto! Euskara Elkarte



Orbaizeta-Ibañeta, 20 urteko zeharkaldiak ospatzeko

Orbaizetatik Ibañeta gaineraino joateko aukera aprobetxatzeko hainbat lagunek eman dute izena honez gero eta autobusa beteko da orain dela hogeitau urte Klub Deportiboko mendi batzordeak antolatutako lehenengo zeharkaldi hura errepikatzeko asmoz. Bihar goiz abiatuko dira mendizaleak 1988ko apirilaren

16ko irtenaldi hura gogoratu eta betetzeko, Belagoatik itsasora zeraman zeharkaldiaren lehenengo etapa hura berriro ere egiteko. Horrez gain, urte guzti hauetan horrelako irteeretan parte hartu dutenek aukera polita izango dute berriro ere elkartzeko. Hori bai, ibilaldia amaituta, mahai baten inguruan izango dute zer kontatu.



Orain dela urte batzuk egindako zeharkaldi bateko irudia.



Eibarko mendizalea, espedizio kideekin.



Deporreko ordezkaria Himalayan

Andoni Zendoia 55 urteko Klub Deportiboko mendizalea Aste Santuan Nepalen izan da eta han Island Peak-en gailurra lortu. Joandako espedizioan bera izan da eibartar bakarra, bost azkoitiar eta azpeitiar batek osatu baitute zazpikotea. Taldeak hamahiru egunez Nepalen zehar trekking-a egin zuen eta, eibartarrarekin batera, Jorge eta Xakarro azkoitiarrak iritsi ziren gailurrera (6.185 metro).

Martxoaren 14an irten ziren, hara 15ean heldu eta hilaren azken egunean hona bueltatzeko.

Trekking-a egin zuten aklimatatzeko, 8-9 egunez, 5.100 metro-ra dagoen oinarriko kanpalekuraino. 24an gora iritsita, azkeneko mila metroko desnibela, gogorre-na, geratzen zitzaizen egiteko. Egundean egin behar izan zuten, alturako kanpalekurik ez baitzuten jarri. Eguraldia ere lagun izan zuten Zendoiak eta taldeki-deak, azken egunean pixkat lainotu bazuen ere beste guztiak garbi-garbiak izan baitziren. Aurretik ere Pirinioetan, Alpeetan... ibilitakoa dugu Andoni Deporreko mendizalea.

Otxoa Memoriala domeka goizean jokoan

Kadete mailako txirindularitza proba egokitu da oraingoan eta Otxoa Memorialaren XLVIII. edizioa jokatuko da domeka goiz eta eguerdiaren artean. Irteera Untzagan emango zaio probari, 10.15etan, eta helmuga Urkizun kokatuko da, Zubi-Gainen parean; aurrikusitako ba-

tezbeste abiadurari jarraitzen badiote, txirindulariak hamabiak bost gutxirako izango dira helmugan.

Lasterketak 66 kilometro izango ditu guztira, honako ibilbidearekin: Eibar, Elgoibar (buelta), Maltzaga, Soraluze, Bergara, Arrasate, Aretxabaleta, Esko-



riatza (buelta), Arrasate, Bergara, Maltzaga eta Eibar.



Toribio Etxebarria, 4

LASTER ZABALIK
+QWAPOS
 txakur ileapaindegia
 tel. 943 12 08 72 Bista Eder, 7

Eibar-Castelló domekan, 18.00etan

Cordoban lortutako garaipenaren ondoren, lau puntu besterik ez zaizkio falta Max-nixen taldeari 50 puntura iristeko. Ikusita Eibarko taldeak etxean zein sendo diharduen, Castelló talde indartsuak ere ez du erraza izango Ipuruan punturik ateratzea. Partida domekan jokatuko da, arratsaldeko 18.00etan hasita. Hirugarren mailako taldeak, bestalde,

Laudion jokatuko du bihar arratsaldean, bertako Laudio Sallekoren aurka. Igoera promozioa jokatuko aukerak ditu oraindik Eibar B-k.

Bestalde, partidu aurretik Eskozia La Brava peñak antolatuta zuen Matuteko Saltxitxoaren Jaialdiaren II. edizioa bertan behera geratu da, diotenez "beharrezkoa izango zen materiala prestatzeko arazoak direlata". Beste batean izan beharko da.



Arrate zapatuko Kopako finalerdietan

Garaipen bikaina lortu zuen herenegun Arratek Leongo Ademarren aurrean. Denboraldi honetan, gainera, hirugarren aldiz nagusitzen dira eibartarrak, aurrendenboraldian Egiako torneoan nagusitu zirelako eta Ligan ere bai Ipuruan jokatutako partiduan. Debre entrenatzaileak zioen moduan, denboraldiko 2. zatirik onena egin zuten Arratekoek eta zortzi goleko aldea kendu zio-

ten Jordi Riverak entrenatzen dituztenei (34-26). Goleatzaile nagusiena Jurkiewicz izan zen beste behin, 11 golekin.

Zapatu arratsaldean eta TV2ko kamarak aurrean direla jokatuko den Kopako finalerdietako partiduan, eibartarrek Ciudad Real munduko talde handienari egin beharko diote aurre. Partidu horretarako bihar goizeko 10.00etan irtengo duten doaneko autobusak antolatu ditu Arratek.



Judoken torneoak

Espainiako txapelketarako 23 urtetik azpikoen fase sektorean, Kalamua judo taldeko Natalia de Diosek brontzezko domina irabazi zuen. Erreterian jokatutako fase horretan, Aragoi, Errioxa, Nafarroa eta Euskadiko judoek jardun zuten. Eibarren jokatutako alebin torneoan, Nekane Muguruzak urrezko domina irabazi zuen.

Euskal Bizikletaren itxura berria

Ekainaren 6an hasi eta 8an amaituko den txirindularitza probak aurten baditu, bai, hainbat berrikuntza eta, zaleei begira, oraindik eta pizgarri gehiago. Iazkoari jarraituz -eta antolatzaileek ondorengo edizioetan berriro bost egunetarako bueltatzea baztertu ez badute ere-, hiru egunetako proba izango da aurtengo edizioa; Arrateko Santutegiaz gain, Bakio, Agurain eta Eibar izango dira itzuli horretako ardatz nagusiak. Ikusgarritasunaren alde egin nahi izan dute probako antolatzaileek eta oraingoran lasterketa ez da irtengo Untzagatik: aurreneko etapa bietako irteera eta helmuga herri berean izango baita (Bakion lehena eta Agurainen bigarrena). Berritze bide horretan,

gainera, erlojuz kontrakoa ere ez da jokatuko aurten; hori dela-eta, lasterketako talde-taktikak eta indarrak izango dira erabakigarri, batez ere. Ekainaren lehenengo asteburuko baxiakuan hasi eta domekan amaituko den 2008ko Euskal Bizikletak honako etapak izango ditu: Bakio-Bakio (155 kilometro, Bizkaia aldean), Agurain-Agurain (163 km., Araban batez ere) eta Eibar-Arrate (151 km. Gipuzkoako lurraldean jokatzea).



Urbateko igerilariak Espainiako lehiaketetan

Martitzenetik dago Tenerifen Ander Romarate Urbat-Urkotronikeko igerilaria, igeriketa minusbaliatutako Espainiako selekzioak deituta, eta asteburuan absolutoekin Kopa jokatuko duen kirolaria. Eta bihar hasi eta astelehenera arte, jokoan da ere Espainiako Kopa eta Urbateko hiru ordezkari izango dira: Maider Perales L'Hospitaleten lehiatuko da, bizkar modalitateko 50, 100 eta 200 metroko probetan; eta Castellónen jokatuko den mutilenean Markel Alberdi (libre erako 400eko eta 1.500ekoan) eta Aitzol Arrillaga (bizkar erako 100 eta 200 metroak eta estiloko 400ekoan) izango dira. Hirurak ere Bardulia taldearekin hartuko dute parte.



- tartak
- enkarguak etxera

Bidebarrieta 28
☎ 943 20 79 73

**EMAKUME ETA GIZON
MODA**

Valenciaga

Konfekzioak

☎ 943 20 22 33 Zuloagatarren, 7



PROTAGONISTA

CARMELO URDANGARIN

idazle eta ekonomilarik "Oficios Tradicionales" bildumako 11. liburua kaleratu berri du. Gipuzkoako Diputazioak editatutako liburuaren aurkezpena hilaren 23an egingo da, Liburu Azokaren barruan. 224 orrialde ditu eta 7 euroko prezioa.

euskeraren txokoa

Euskararen Jatorriaren III. Biltzarra. Langraitzen egingo da biltzarra maiatzaren 17an. Bilkura egiteko Oka-Iruña aukeratu dute, "udalerrri horretan aurkitutako idazkunek euskararen jatorria argitzen laguntza handia eskainiko dutelako". Mahai-ingurua izango da euskararen oinarriko hamabi hitzen etimologiari buruz.

Ekainaren 14an Mintza Eguna. Topaguneak udaberri amaierarako antolatu du III. Mintza Eguna eta Algortan eta Romon egingo da festa. Euskal Herri osotik etorritako 400 bat berbalagun biltzea espero dute, euskara dakitenak eta ikasi berriak elkartzuz. Gaur egun 46 udalerritan 2.500 berbalagun edo mintzalagun daude.

Euskararen gaitasun agiriak ballokidetu. Euskararen gaitasun egiaztagirri guztiak elkarrekin ballokidetu ditu Eusko Jaurlaritzak, parekatzea egiteko oinarri gisa Europako Erreferentzi Marko Bateria erabiliz. Hizkuntzen Europako marko horretan erabakitako B-1, B-2, C-1 eta C-2 ziurtagiriekin parekatzea onartu du dekretuak.

Zientzia euskaraz jendarteratzeko aldizkaria. Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko Diputazioek, Eusko Jaurlaritzak, EHU Euskal Herriko Unibertsitateak eta Elhuyar Fundazioak Irika aldizkaria eta webgunea aurkeztu dute. Dibulgazio zientifikoko aldizkaria DBHko 3. eta 4. maila eta batxilergoa ikasten diharduten gazteei dago zuzenduta.

Laburrak

NEKAZARITZA EKOLOGIKOA

Ortua modu naturalean nola zaindu eta loren inguruko beste kontu interesgarri batzuk ikasteko aukera izango da martitzenetik aurrera Portalean, EHNEk Eibarko Udalaren eta Ikasten-en laguntzarekin antolatutako ikastaroan. Ekainaren 3ra arte iraungo duen ikastaroa martitzeneko emango dute, 16.00etatik 18.30etara eta izen-ematea doan da. Izena eman nahi duenak 667-207684 telefono zenbakira deitu behar du (Rosa Mari).

DEBAKO ARTE ESKOLA

Udari begira, uztaila eta abuzturako ikastaro eskaintza zabala izango da Deba-ko Arte Eskolan: grabatu kalkografikoa (hastapenak), egurra lantzeko tailerra, marmolezko eskultura, brontze-galdaketa artistikoa, zeramika-serigrafia (hastapenak), pintura tailerra, forja lanen hastapenak eta zeramikaren hastapenak. Informazio zabalagoa izan nahi duenak www.debarte.net helbidean edo 943191804 telefonoan kontsultatu dezake.

BARRETERAPIA TAILERRA

Nafarroako Kutxaren (CAN) 'Canchak' helduendako barreterapia tailer praktikoa antolatu du datorren eguaztenerako. 19.00etatik aurrera Ainhoa Ruiz arduratuko da tailerarekin, Errebal kaleko 22an. Sarrera doan da.

ZEZENKETARAKO SARRERAK

Maiatzaren 11n Eibarren egingo den zezenketarako sarrerak salgai claude herriko hainbat taberna eta establezimendutan. Sarrerak, aukeratzeko den tokia araberak, 35 eta 80 euro bitartean eskuratu daitezke.

Umeendako antzerkia bihar arratsaldean

Vaivén Producciones taldeak 'Inalanbrikak' bere azken lana taularatuko du bihar arratsaldean, 18.00etatik aurrera Coliseo antzokian. Marina Aparicio, Getari Etxegarai eta Aina Ortega antzezleek ahots-hirukote batek bere lehen kontzertuari aurre egiteko orduan dituen beldur eta zalantzak agerian lagako dituzte. Olga Margallo eta Ana Pimentak zuzentzen duten antzezlan "komedia musikal" gisa kalifikatu dute eta ume zein gurasoentzat aproposa da. Musikak garrantzi handia du lanean, Iñaki Salvador pianojolearen ekarpenari esker.

Egileen berbetan, "lanaren helburuetako bat umeak beraien beldurrak askatu eta erakustera bultzatzea da eta, horregatik, lanak eskaintzen duen gakotako bat beldurraren inguruan txikitatu normaltasunez berba egitea eta helduei beldurra dutela adieraztea komenigarria dela erakustea da". Antzezlanerako sarrerak 5 euro balio du.



Umeen beldur eta zalantzak landuko dira obran.

Danborradarako entsaiatzen

Uteroko moduan, danborradarako prestatzen hasi dira eibartar asko: eguzten arratsaldetan dira entsaioak, betiko to-

kian (Bittor Sarasketa kaleko lokalean). Umeek 19.00etatik aurrera entsaiatzen dute eta, ondoren, nagusien txanda 20.00etan hasten da.

URKIZU, 7 ☎ 943 82 04 94 / 943 12 11 20 Faxa: 943 12 11 40
uthemek@uthemek.com



MEKANIKETARAKO
TRESNAK

SPK- Zeramika, silizioa

ISCAR - Trontzaketa eta fresadorarako erreminta bereziak

ROY - Diamante eta boraxezko harriak

Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan

Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira trasladoak

NTRA. SRA. DE BEGOÑA
EHORZKETA

• KOROAK • ESKELAK • HILARRIAK • AGIRIAK

BULEGOAK ETA ERAKUSKETA:
Txaltxa-Zelai 4-6 behe, ezkerre

ZERBITZU IRAUNKORRA:
☎ 943 20 10 95 Faxa: 943 20 25 64



Ikasle bati eskutitza

Aupa Asier. Zer moduz? Badakit ez dela oso ohikoa zutabetxo honetan gutun pertsonalak idaztea, baina, zuretzat bezala, Euskaltegi honetako beste hamaika ikaslerentzat idatz dezaket gutun bat. Eta denak antzerakoak. Horien izenean tokatu zaizu zuri gaurkoa. Kontua da urte hau Eibarko Udal Euskaltegian pasatu duzula eta hasi zinenetik hilabete batzuk pasatu dira dagoeneko. Denbora tarte honetan fin ibili zara klasean, eta liburu batzuk eraman dituzu etxean irakurtzeko. Orain dela urte asko ni neu ere Euskaltegiko ikaslea izan nintzen eta oraindik gordeta ditut, baina ez dakit oso ondo non, zenbait idazlan eta apunte. Ez dut orain gogoratzen zenbat berridazketa eta sinonimoak lantzeko ariketa prestatu nituen, baina ez ziren gutxi izan. Badakizu hemen fotokopia falta ez dugula izaten! Beti saiatzen gara behar duzuen guztia ematen eta ez da alperrikako lana. Zu bezalako ikasleentzat egiten dugu lan gustura baino gusturago eta zuek bezainbeste pozten gara emaitza onak lorten dituzue-nean. EGA azterketan atariko gaingidu duzu. Baita HABERen 3. mailakoan ere. Zorionak! Eta argi eduki ez dela kasualitatea izan. Lortu duzuna egindako lan tinkoaren emaitza baino ez da. Azterketa edo tituluaren premiarik gabe, gauza bera gertatzen da Euskara bereganatzen ari diren ikasle asko eta askorekin. Zuentzat eta zuekin egiten dugu lan. Eta horrela jarraitzeko asmoa dugu. Bai horixe! Badakizu edozertarako hemen gaituzula. Bitartean, ondo izan!

Jorge Beorlegi

Kirol taldeak Eskola Agendarako

Datorren ikasturteko Eskola Agendaren gaia Eibarko kirol klubak izango da. Udaletik jakitera eman dutenez, "klub asko direnez, agenda horretan honako klub hauek hartuko dute parte: CD Urki, Urbat igeriketa, Ipurua Gimnasia Erritmikoa, Eibarko Klub Deportiboa (xakea, atletismoa eta txirrindularitza), Eibar rugby taldea, Arrate eskubaloi taldea, Kalamua judo eta Eibartarrak foball taldea. Gainontzeko klubek hurrengo ikasturteko agendan hartuko dute parte".

Agendako azal biak diseinatzeko lehiaketan herriko ikas-



tetxeetan ikasten diharduten 12-18 urte bitarteko gazteek har dezakete parte. Antolatzaileek klub horien logotipoak Errota Gaztelekuko ordenagailuetan jaisteko moduan ipini dituzte, norbaitek bere disei-

nurako erabili nahi baditu. Irabazleak 300 euro jasoko du eta bere diseinua herrian banatuko duten Eskola Agendan erabiliko dute. Lanak maiatzaren 2tik 16ra jasoko dituzte Pegoran.

Iñigo Manterola Topalekuan



Zarautzen bizi den oriotarraren lanak hilaren 27ra arte ikusi daitezke.

Gaur arratsaldean inaurguraturako du erakusketan Iñigo Manterola margolariak Topalekuan. Apirilaren 27ra arte, Orion jaio eta Zarautzen bizi den artista honen lanak ikusteko aukera paregabea izango da, ohiko ordutegian: astegunetan, 19.00etatik 21.00etara eta zapatu eta jai egunetan, berriz, 12.00etatik 14.00etara eta 19.00etatik 21.00etara. Artista eta bere lana hobeto ezagutu nahi duenak, www.imanterola.com helbidera jo dezake.

Paulinoren lanaren katalogoa

Eguaztenean aurkeztu zuten Portalean 'Paulino Larrañaga. Arte Ederretako bihargiña' liburu-katalogoa. Jose Valderrey argazkilaria koordinatutako lana artistak iazko urrian Portalean egin zuen erakusketan oinarrituta dago. 96 orrialde-



tan artistaren bizitza eta lanari errepaso ematen zaio eta, horrez gain, bere lan esanguratsuenen argazki ugarirekin osatu dute katalogoa. 90 urte bete berri duen artista pozik agertu zen liburuaren aurkezpenan. Liburua 10 eurotan salgai dago.



LEIRE ITURBE

Opera saio bikoitz arrakastatsua

Eguren eta barfaxuan Coliseoan eskaini zen 'La Traviata' opera ezaguna oso ondo hartu zuen jendeak, egun bietan antzokia beteta egon zen-eta. Nueva Lirica konpainiako abeslari eta musikariek eskainitako saio bien amaieran txalo ugari jaso zituzten.



LEIRE ITURBE

Bilboko txistulariak Coliseoan

Zapatuan Bilboko Udal Txistulari Bandak kontzertua eskaini zuen Coliseo antzokian, Alos Quartet taldeko musikariekkin batera. Kontzertura joan zirenek hainbat pieza ezagun entzuteko aukera izan zuten, benetan berezia izan zen emanaldian.



Cristina Azpiriren koadroak Elgetan

Apirilaren 30era arte Cristina Azpiri Ugarteburu elbartarren margolanak Elgetan ikusteko aukera izango da, Espalola kafe antzokian. Eibarko Artisten Elkarteko kideak bere azken lanak ipini ditu ikusgai, olio eta akuarelak. Erakusketarako sarrera librea da.

'1936: Gerra Zibila eta Errepresioa' izenburupean hitzaldia eskainiko du Majuelo historialariak, ...eta kitto!-k antolatzen duen 'Ilunabarrian' ekimenaren barruan. Hitzaldia martitzenean izango da, 19.00etatik aurrera ...eta kitto!-k Urkizun dituen lokaletan.



EMILIO MAJUELO, HISTORIALARIA: "Zeozter bada inoiz ixten ez dena hori historia da"

- Esaten da historia garalleek idazten dutela. Gerra Zibilaren kasuan horrela izan da?

Dudarik gabe. Gutxienez, frankismo garaian ez zegoen beste historialaririk eta, hortik aurrera, denetarik egon da. Horrela, 70. eta 80. hamarkadatik aurrera, sakontasun eta zehaztasun aldetik askoz hobeto idatzi dira gauzak. Historia ez da ixten inoiz, hau da, bertan agertzen diren gauzak ez dira egia borobilak. Hala ere, dudarik gabe, askoz gehiago dakigu eta historikoki ziurragoa da orain argitaratzen dena lehengo baino.

- Zein iritzi daukazu 'Memoria Historikoa'-ren gainean?

Oso gauza interesgarria suertatu da horrekin. Pentsatzen nuen hau gai historiko edo akademiko batean geratuko zela, eta ez zela aukerarik izango jendearen artean horrelako grinak edo nahiak berpizteko. Nafarroan orain dela 30 urte hasi ginen kontu honekin eta ia 8 urtetan jaso genuen jakin beharrekoa. Hala ere, uste dut Gerra Zibilaren eta errepresioaren kontuak ez duela amaierarik, karlismoak izan zuen moduan, adibidez. Zergatik? Oso gai hunkigarria delako eta, bestetik, politikoki garrantzitsua delako. Oso kuriozua izan da errepresaliatuen bigarren belaunaldia hasi dela mugitzen eta haiek direla orain mugimendu honen atzean daudenak.

- Gerra Zibilaz eta errepresioaz ezagutzen dena behar den bezala ezagutzen da?

Historia ez da zientzia zehatza. Interpretazio asko egin dira, baina gehiago egin daitezke

oraindik. Irakurleak, sufritu dutenek eta hauen ahaideek ikusi behar dute ematen den informazio eta interpretazio berriekin hobeto ulertzen dutela gertatutakoa. Baina, hala ere, ezin da esan "hau horrela izan zen". Izan ere, pertsona batek bere bizia eman zitekeen zeuzkan ideiegatik, baina pertsona hori falangista edo anarkista izan zitekeen. Horrela, balorazio moral edo politiko-ideologikoa ezin da eman, bakoitzaren kontua da hori.

- Gaur egunean ondo aztertzen da historia?

Zalantzarik gabe. Badaude gauza batzuk jada ez direnak eztabaidatzen, adibidez, Gerra Zibilaren kasuan, zenbakien kontuen eztabaidak amaitu egin dira. Orain aztertzen duguna da zein garrantzi duen dakigunak historiaren interpretazio batean. Hau da, errepresioa, adibidez, beste gauza bat bezala jorratu dezakegu edo ezin da ulertu frankismoak gabe? Hor dago eztabaida: errepresio eta indarkiarene funtsa frankismoaren interpretazio batean. Hori legean ikusten da, ez delako tratatzen, Gerra Zibileko urteak bakarrik agertzen dira eta ez hurrengo 40 urteak.

- Eta zergatik ez da tratatzen?

Ardurarengatik. Erantzunkizuna 1975 urtera arte heltzen da eta trantsizioan frankismoaren azken etapan dena zehaztuta laga zutenek hartu zuten parte. Gauza da, eztabaida hurbildu egin dela, baina hurbiltzean gure demokrazia santu hau mugitu behar da eta hor ikusten ditut nik arazoak.

telefono jakingarriak

SOS deiak..... 112
 Pegora 010
 Udaletxea 943 70 84 00
 Portalea 943 70 84 39
 Udaltzaingoa..... 943 20 15 25
 Mankomunitatea.... 943 70 07 99
 Debegesa 943 82 01 10
 KIUB 943 20 38 43
 Epaitegia 943 03 34 00
 Iberdrola..... 901 20 20 20
 Naturgas..... 902 12 34 56
 DYA Larrialdia... 943 46 46 22
 Gurutze Gorria... 943 22 22 22
 Mendaro osp..... 943 03 28 00
 Anbulategia..... 943 03 25 00
 Torrekua 943 03 26 50
 Errepideak..... 902 11 20 88
 Ertzaintza 943 53 17 00
 Eusko Tren..... 902 54 32 10
 Pesa 902 10 12 10
 Taxiak 943 20 30 71
 943 20 13 25
 Alkoholiko Anonimoak 629 14 18 74

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egutero: 07.00, 08.50, 10.30, 13.30 eta 18.30. Laneguna: 08.00, 15.30, eta 20.30. Jaieguna: 09.30 eta 20.30. DONOSTIA-EIBAR. Egutero: 12.30, 15.00, 17.30, 19.30 eta 20.45. Laneguna: 07.00, 09.30 eta 13.30. EIBAR-BILBO. Laneguna: 06.40etatik 20.40etara orduro. Zapateria eta jaieguna: 07.40etatik 21.40etara orduro. BILBO-EIBAR. Laneguna: 06.40etatik 21.40etara orduro. Zapateria eta jaieguna: 07.40etatik 21.40etara orduro. EIBAR-GASTEIZ. Egutero: 06.15, 10.45, 14.45 eta 18.45. Zapateria: 06.45, 10.45, 14.45 eta 18.45. Jaieguna: 08.45, 10.45, 14.45, 16.45, 18.45 eta 20.45. GASTEIZ-EIBAR. Egutero: 08.30, 12.30, 16.30 eta 20.30. Jaieguna: 08.30, 10.30, 12.30, 16.30, 18.30 eta 20.30. EIBAR-IRUÑA. Laneguna: 07.45 eta 13.30. Jaieguna: 07.30 eta 18.00. IRUÑA-EIBAR. Laneguna: 10.45 eta 18.00. Jaieguna: 10.45 eta 21.00. EIBAR-ARRATE. Zapateria: 14.15. Domeka eta jaieguna: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. ARRATE-EIBAR. Zapateria: 14.45. Domeka eta jaieguna: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30. EIBAR-ELGETA. Laneguna: 13.30 eta 20.20. Domeka eta jaieguna: 12.00 eta 19.00. ELGETA-EIBAR. Laneguna: 14.00 eta 20.50. Domeka eta jaieguna: 12.30 eta 19.30. ERNUA-MENDARO. Astelehenerik ostiralera: 06.20, 07.10, 07.50 (07.50etatik 22.20etara orduerdiro). Zapateria-Domeka-Jaieguna: 06.50-etik 21.50-era orduro. MENDARO-ERMUA. Laneguna: 06.55etatik 21.55-era orduerdiro. Zapateria-Domeka-Jaieguna: 07.55-etik 21.55-era orduro.

tren ordutegiak

EIBAR-BILBO. Laneguna: 06.13etatik 21.13etara orduro. + 10.35 eta 21.38. BILBO-EIBAR. Laneguna: 05.57etatik 20.57etara orduro. + 09.34 eta 20.18. EIBAR-DURANGO. Egutero: + 22.18. EIBAR-DONOSTIA. Laneguna: 06.13etatik 20.13etara orduro. + 10.35 eta 21.38. DONOSTIA-EIBAR-ERMUA. Laneguna: 05.47etatik 20.47etara orduro.

eguraldia

Euskal Meteorologia Agentziatik

EURIA

BIHAR goizean hodeiak eta ostarteak tartekatuko dira eta noizbehinka tanta batzuk bota ditzake. Arratsaldean zaparradak eta ekaitzak lagako dizkigute hodeiek. Egunaren amaieran atertu egingo du. Hegoaldeko haizea ibiliko da, zerbitu gora eginez tenperaturak. DOMEKAN berdin jarraituko du, baina euri gehiagorekin.

18 barixakua

ZUBI GAIÑEK 3 URTE

19.30/21.00.- Piskolabisa denentzat. 22.30.- Heineken jaia: zozketa (fabrikara 12 bidaia eta 5 litroko 10 kupela). 00.00.- Marsel Magoaren saioa. Zubi Gain tabernan.

19 zapatua

TXANGOIA

09.00.- Arrate Kultur Elkarteak Arrikruzera (Oñati) antolatutako txangoaren irteera. Ego-Gain autobus geltokitik.

ATE IREKIAK

10.30.- Lea Artibai ikastetxearen eskaintza ezagutzeko jardunaldia. Markina-Xemeinen.

LIBURUAREN EGUNA

10.30.- Liburu-salmenta, Aierbe liburudendaren eskutik. Untzagan (jubilatutako egoitzaren aldamenean).

ZUBI GAIÑEK 3 URTE

12.30/15.00.- Trikitilarien saioa. 19.30/21.00.- Piskolabisa denentzat. 23.30.- Barcelóna eta Gin MG jaia: sariak, opariak, azafatak... 00.15.- Karaoke jaia, sariekin. Sorpresa. Zubi Gain tabernan.

BAZKARIA ETA ZIRKUA

14.30.- Bazkari makrobiotikoa. 16.30.- Zirkua Iruñeatik. Egunean zehar oihaletan egindako pinturen erakusketak. Tallarra gaztetxean.

ZINEA JUBILATUENTZAT

17.00.- 'Atasco en la nacional' (Pablo Carbonell, Anabel Alonso...). Sarrera doan, Kutxako gonbidapenarekin. Piskolabisa. Amaña Kultur Aretoan.

UMEENDAKO ANTZERKIA

18.00.- 'Inalanbrikak' (Vaivén Producciones). Sarrera: 5 euro. Coliseoan.

20 domeka

TXIRRINDULARITZA

10.15.- Otxoa Memoriale, Untzagatik irteera. Helmuga: Urkizun, 11.55ak inguruan.

ZUBI GAIÑEK 3 URTE

12.00/15.00.- Trikitilarien saioa. Zubi Gain tabernan.

21 astelehena

ZIBERGELA

12.00.- Zibergelaren berri-naugurazioa. Untzagako jubilatutako etxean.

DANTZA

17.30.- Sevillana erakustaldia, Azahar taldearekin. Dantzaldia, José Airasek zuzenduta. Untzaga jubilatutako etxean.

22 martitzena

IKASTEN

09.30.- 'Visiones del hombre' (confucionismo, hinduismo, islamismo, cristianismo, Platón, Marx, Freud, Sartre, Skinner...). Hezkuntza Esparruan. 16.00/18.30.- Ikastaroa: Nekazaritza ekologikoa. Ortua eta lorak. Doan. Portalean.

GURASOAK MARTXAN

18.30.- Hitzaldia: 'Hasierako kontsumo eta portaera desgokien prebentzioa'. Mogel Isasin. 19.00.- Hitzaldia: 'Los adolescentes hoy en día'. Itzio BHN.

ILLUNABARRIAN

19.00.- Hitzaldia: '1936: gerra zibila eta errepresioa'. Hizlaria: emilio Majuelo. ...eta kitto! Euskara Elkartearen (Urkizu, 11 solairuartea).

EIBAR ZINE KLUBA

21.30.- 'Tener y no tener' (Zuz: Howard Hawks). Sarrera: 3'50 euro. Coliseoan.

lehiaketak

Sanjuanak 2008

Eibarren kartel lehiaketa

Epea: **Malatzaren 16ra arte.**

Informazioa:

Pegora eta Portalean.

Alkohol larregi edatearen kontrako pegatina lehiaketa

Epea: **Malatzaren 16ra arte.**

Informazioa:

Pegora eta Portalean.

Escola Agenda 08-09 azala diseinatzeko lehiaketa

Epea: **Malatzaren 16ra arte.**

Informazioa:

Pegora eta Portalean.

Armeria Eskola Sariak

Epea: **Malatzaren 19tik 23ra.**

Informazioa:

Armeria Eskolan.

23 eguaztena

OLERKIAK

19.00.- Juan San Martinen olerkiak, Iñaki Aldekoa eta Felipe Juaristirekin. Portalean.

TAILERRA

19.00.- 'En positivo', helduendako barreterapia tailer praktikoa, Ainhoa Ruizekin. Doan. CANen (Errebal, 22).

IKASTEN

19.30.- Kaleetan Kantuz. Entsaioa. San Andres elizan.

24 eguena

IKASTEN

09.30.- 'Visiones del hombre' (confucionismo, hinduismo, islamismo, cristianismo, Platón, Marx, Freud, Sartre, Skinner...). Hezkuntza Esparruan. 11.30.- Bideo-konferentzia: 'Integración de los alumnos inmigrantes en la escuela' (Félix Etxeberria Alberdi, EHUko irakaslea). Hezkuntza Esparruan.

EGO IBAR ZINE KLUBA

17.30 eta 21.00.- 'Adiós pequeña adiós' (Zuz: Ben Affleck). Sarrera: euro 2. Hezkuntza Esparruan.

TAILERRA LIBURUTEGIAN

18.00.- 'Familiak ere kontatzen du', 3-5 urte bitarteko umeentzat (heldu batek lagunduta). Umeen liburutegian.

GURASOAK MARTXAN

19.00.- Hitzaldia: 'Prevencción de consumos problemáticos'. Aldatzen.

diru-laguntzak

UEUko matrikularako

Zenbatekoa: Matrikularen erdia.

Epea: **Malatzaren**

30era arte.

Non: Pegoran.

bestelakoak

Udalekuak 2008

Izena-emateko epea:

apirilaren 17tik 25era

(14-17 urte bitarteko umeak).

Informazioa: www.

gipuzkoa.net/oporraldi

edo Gazte Informazio

Bulegoan (Portalean).

erakusketak

Apirilaren 20era arte

Eibarko Artista Elkartearen erakusketa. **Portalean.**

Corrado Masacci-ren 'Zirkua eta txotxongiloak' erakusketa. **Portalean.**

Apirilaren 27ra arte

Iñigo Manterolaren margo erakusketa. **Topalekuan.**

Apirilaren 30era arte

Cristina Azpiriren margo erakusketa. **Espaloian -Elgeta-**

'20 urte EH zeharkatzen'. Deporreko mendi taldea 1988-2008. **Deporreko tabernan.**

'Aratosteak 2008'. Deporreko Argazkilaritza Taldea. **Ambigü eta Portalea tabernetan.**

ikastaroak

Kzguneko mintegiak

Banka elektronikak

Noiz: **apirilak 23 eta 24** (18-20).

Berehalako mezularitza (messenger)

Noiz: **apirilak 28** (09-11).

Non: Karmen kaleko KZgunean.

Erretzeari lagatzeko

Noiz: **maiatzak 13, 20 eta 27; ekainak 3, 10 eta 17; uztailak 1.**

18.30etatik 20.00etara.

Matrikula: Doan. Pegoran.

Epea: **Maiatzak 8.**

Discosana jaietan tailerra

Drogekin lotutako arriskuak gutxitzeko.

Hartzaileak: Txosna eta jai batzordeetako kideak.

Noiz: **ekainak 9 eta 11.**

18.00etatik 20.30etara.

Matrikula: Doan. Pegoran.

Epea: **Ekainak 5.**

sarrerak salgai

ANTZERKIA

'Inalanbrikak'.

Apirilak 19, 18.00, ZINEA

'Tener y no tener'

(jatorrizko bertsoia).

Apirilak 22, 21.30.

laster salgai

DOKUMENTALA

'Tierra' (BBC).

Apirilak 29, 21.30.

...eta musu bat zuretako

Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 3 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 6 euro. Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, JULEN, hereñegun bederatzirte egin zenittuan-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.




Zorionak, IRATXE, gaur bertan zortzirte betetzen dituzulako. Muxu haundi bat Eibarko sendiaren partez.



Zorionak, LEIRE, hillaren 22xan hamar urte egingo dituzulako. Muxu haundi-haundixa Alaitz, aitta eta amaren partez.



Zorionak ENEKO Trebiño Bereziartua, eguaztenian sei urte egin zenittuan-eta. Muxu bat Leire, Ander, aita eta amaxoren partez.



LUKAS Del Campo Agirre Donostian jaio zu hillaren 11n. Famelixak ongi-etorrixa emoten detsa.



Zorional MARKEL, atzo urte bi egin zenittuan-eta. Famelixaren partez.



Zorional MARIAN, atzo urtiak egin zenittualako. Jorge, Maria eta Gorkaren partez.



Zorional OLATZ. Zure urtebetetzian egun paregabia opa deusut.



Zorionak hillaren 8xan bost urte bete zittuan Maitane Velaskori eta bixar, zapatuan, bederatzirte egingo dituan Anderri. Muxu haundi bat famelixaren partez.

farmaziak

18. barixakua

GOIZEZ **Las Heras** (Sostoatarren, 20)
GAUEZ **Alberdi** (Zubiaurre, 9)

19. zapatua

GOIZEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
GAUEZ **Cortina** (Zubiaurre, 29)

20. domeka

GOIZEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)
GAUEZ **Ugarte** (Sta. Zezilla, z/g)

21. astelehena

GOIZEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

22. martitzena

GOIZEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
GAUEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)

23. eguaztena

GOIZEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
GAUEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)

24. eguena

GOIZEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
GAUEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)

25. barixakua

GOIZEZ **Urizar** (J. Etxeberria, 7)
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)



hildakoak

- Jose M^o Gorostegi Zabala.
80 urte. 2008-IV-12.

jaiotakoak

- Nora Arakistain Salbide. 2008-IV-5.
- Markel Maiora Maiztegi. 2008-IV-9.
- Lur Gerenabarrena Vázquez. 2008-IV-9.

denborapasak



Aurkitu hemen 15 ABESTI izen (hitz batekoak)

Aurrekoaren
SOLUZIOA

ETXEBIZITZAK

- Eibarren pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 646-662911.
- Salamancan etxea konpartitzeko ikasleak behar dira datorren ikasturterako. Tel. 676-081717.
- Eibarren pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 626-061112.
- Isasin pisua salgai. Logela bi, egongela, sukalde, bainugela eta komuna. Berria, guztiz jantzita. Dena kanpora eta berogailua. Tel. 627-095017.
- Barrera 36an pisua salgai. 80 m². Hiru logela, egongela, sukalde eta komuna. Despentsa eta ganbara. Igogailua eta kaldera. Terraza eder bi. Tel. 679-410100.
- Legarreko dorreetan pisua salgai. Hiru logela, egongela, sukalde, komun bi. Balkoia eta despentsa. Eguzkitzua. 48.500.000 pta. Tel. 653-733357.
- Jardinetan pisua salgai. Logela bi, egongela, sukalde-jangela eta komuna. Berriztua eta balkoiarekin. 195.000 euro. Tel. 636-438918.
- Eibarren pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 626-380238.
- Eibarren edo inguruan pisua edo logela hartuko nuke alokairuan. Tel. 625-265942.
- Bikoteak Eibarren pisua hartuko luke alokairuan. Tel. 680-579670. Egoitz.
- Debabarrenean pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 662-239392.

SALEROSKETAK

- Porlanezko bigarren eskuko amasadorrea erosiko nuke. Tel. 943-701082.
- Musika ekipoa salgai. MCD-201 modetua, mando eta bozgorailu birekin. 150 euro. Deitu 20.00etatik 22.00etara. Tel. 943-530667.
- Disko-jogailua erosiko nuke. Tel. 676-556739. Inaki.
- Tintin-en abenturen bideoak salgai (14). Zortzi euro. Tel. 943-120030.
- Musika kate profesionala salgai: etapa das 250W; MP-3 5810-N cd fonestar; array ps-8" kaxa bi; eta audio phony XS-2 nahasketak-mahaia. Tel. 615-727286. Aitor.

AUTOAK

- Opel Vectra GT 2.0 salgai. 130cv. AIT eta udal zerga ordainduta. 1989koa. Tel. 637-704715. Ander.
- ADRIA karabana salgai, abantzearekin. Barruan gordeta egon da. Tel. 659-621308.
- Renault Traffic ekipatua salgai. Bidaiazteko 5 plaza, 4 lo egiteko. Sukalde guztiz ekipatua, igo daitekeen sabaia, berogailu estatikoa eta jarleku giratorioak. Duxta, tolo eta bizikletak eta eskiak eramateko. 75.000 km. 2003 urtekoa. Egoera onean. Tel. 658-710899 edo 685-725840.

LANA

- Publizitate banaketa egiteko pertsona bat behar da. Tel. 627-561790.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu, garbiketa egin eta sukalde laguntzaile lanetarako. Tel. 656-781742.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 686-995941.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 627-031640.
- Emakumea eskaintzen da orduka garbiketa lanetarako. Esperientzia. Tel. 616-305808.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 628-077867. Bernarda.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 679-910991. Vitoriana Ana.
- Emakumea behar da garbiketa lanetarako. Autoa izatea ezinbestekoa. Tel. 679-950907.
- Psikologoa behar da Eibarko Zentro Psikotekniko baterako. Tel. 667-995929 edo 943-208600.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Externa. Tel. 618-175692.
- Emakume euskalduna behar da Elgoibarraren 16.30etatik 20.30etara umeak zaintzeko. Tel. 650-497989.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Esperientzia. Tel. 626-876186.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Esperientzia. Tel. 646-235195.
- Emakume eibartarra eskaintzen da umeak zaintzeko, goiz zein arratsalde. Tel. 639-044748.
- Mutila eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 617-635744.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 638-726007.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu edo kamarera lana egiteko. Esperientziarekin. Tel. 608-719981.
- Neska behar da uztailean umeak zaintzeko. Tel. 943-120184.
- Neska euskalduna behar da umeak zaintzeko. Tel. 677-858244.
- Neska eskaintzen da sukalde laguntzaile, garbiketa lanak eta umeak zaintzeko. Tel. 666-146666.
- Mutila eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 626-380238.
- Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 626-380238.
- Neska behar da ileapaindegirako. Ofiziala edo laguntzailea. Tel. 943-207630. M.Carmen.
- Emakumea eskaintzen da arratsalde umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 943-254314.
- Emakumea eskaintzen da goizez umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 686-435056.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 616-230814.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 648-210838.
- Neska arduratsua eskaintzen da goizez etxeak edo pegorak garbitzeko. Tel. 665-726288.
- Kamarera/o behar da terraza batean lan egiteko. Tel. 943-701207.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 679-578511.
- Emakumea eskaintzen da gauzez edo orduka nagusiak zaintzeko. Tel. 690-199860.
- Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 635-355168.
- Neska eskaintzen da arratsalde umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 666-815008.
- Emakumea eskaintzen da goizez edo orduka edozein lanetarako. Tel. 656-781743.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 648-603029.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 606-169667.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Geriatrian esperientziarekin. Tel. 699-576107.

zinemazinema



untzaga "Expiación"

ZUZENDARIA:

Joe Wright

AKTOREAK:

Keira Knightley, James McAvoy, Saoirse Ronan, Romola Garai...

Ingalaterra; II. Mundu Gerra hasteko denean, Briony Tallis eta bere familia aste-buru pasa egiteko batuko dira. Robbie Turnerri egingo ez duen delitua egotziko dio Briony. Ondorio latzak izango ditu bere ahizpa eta Robbieren harremanean...

Iragarkiak ipintzeko:
943-200918 (Marisol).

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako **PREZIOAK** honakoak dira: **Etxeak, lokalak, garajeak:** alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. **Autoak:** 10 euro. **Doaneko iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.**

zinemazinemazinemazinema



ego ibar "Adios pequeña adios"

ZUZENDARIA:

Ben Affleck

AKTOREAK:

Casey Affleck, Michell Monaghan, Morgan Freeman, Ed Harris...

Bostonen lan egiten duten ikertzaile pribatu bik lan gogorra izango dute: Bostoneko auzorik txarrenetan lau urteko neskatua bahitu dute. Neskatoa lehenbailehen aurkitu eta gurasoengana eramane behar dute...



amaña "Atasco en la nacional"

ZUZENDARIA:

Josetxo San Mateo

AKTOREAK:

Pablo Carbonell, Ana Polvorosa, Anabel Alonso, Luisber Santiago...

Montoro familiak Cullerarako bidea hartu du. Kotxe iladak medio, berandu ailegatuko dira apartamentuetara eta alokatuta zutena galdu egin dute. Egora penagarrian dago orain ematen dioten etxea, baina...

Ignacio Zuloaga Institutua



Batxilergoan espezialduak

Artistikoa (A eta D ereduak)

Giza eta Gizarte zientziak (D)

Zientifiko/ teknikoa (D)



ELKARTRUKEAK

Europako ikastetxeekin

1.mailan Ingalaterrara

2.mailan Alemaniara



Ikastetxe erabat euskalduna
Ikasle eta irakasleak bai eginda
euskeraz zabaltzeko hainbat ekimen antolatuzko

D ereduari 27 URTE

non dago aurrerapena?
euskeraz bizi dena?
aukerarik onena?
non eman izena?

Ignacio Zuloaga institutuan
hor daukazu dena!

